

GIZARTE

MUGIMENDUAK

Mapa berri baterako lehen orriak

Egilea

MARIA IRIGOIEN MATXIARENA

Zuzendaria

MARIO ZUBIAGA GARATE

EHU / UPV

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.

Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoko Gradua

2014/2015 Ikasturtea

Gradu Amaierako Lana

LABURPENA

Gizarte mugimenduen teoriengatik inguruko hurbilpen bat dugu lan hau. Ikuspegi klasikoak aztertzeaz gain, azken hamarkadetan agertu diren bestelako gaiak eta perspektibak kontutan hartzen dituena. Lan honen bitartez perspektiba hauek proposatzen duten bidea aztertu dugu, azken batean eta epe luzera gizarte mugimenduen inguruko teoria oso bat garatzeko lehenengo pausuak emateko helburuarekin.

ABSTRACT

This is an approach on the theories of social movements. Apart from analyzing the classical perspectives, this approach takes into consideration the latest perspectives and issues that have emerged in this field during the last decades. In this work the ways proposed by these perspectives have been analyzed, with the aim of eventually taking the first steps in the creation of a complete theory of social movements in a long term.

I. AURKIBIDEA

I.	AURKIBIDEA	2
II.	SARRERA	3
III.	GIZARTE MUGIMENDUEN INGURUKO HURBILPEN BAT	5
	A. Gizarte mugimenduen definizioa	5
IV.	GIZARTE MUGIMENDUEN IKERKETAREN TEORIA NAGUSIAK	9
	A. Portaera kolektiboa, Chicagoko Eskola eta ikuspegi arrazionalak.	10
	B. Tradizio amerikarra, baliabideen mobilizazioa	12
	C. Tradizio europarra, Gizarte Mugimenduen teoria berriak. Identitatearen garrantzia	14
	D. Aurreko bien integrazioa, sintesia. Mugimendu berriak, paradigma berriak.	15
V.	AGENDA KLASIKOTIK POLITIKA LISKARTSUAREN DINAMIKARA	19
	A. Agenda Klasikoaren ezaugarriak	20
	a. Mugimenduaren Aukera Politikoak	20
	b. Mugimenduen Protestarako Ekintza Moten Bilduma	22
	c. Mugimenduaren Mobilizaziorako Egiturak Eta Sareak	23
	d. Mugimenduaren Ekintza Kolektiboaren Marko Diskurtsiboak	25
	B. Agenda Klasikoak jaso dituen Kritikak	25
	C. Agenda Klasikoari egin zaizkion ekarpenak. Mekanismoak eta dinamikak	26
VI.	GIZARTE MUGIMENDUEN IKERKETAN EGIN DIREN EKARPEN BERRIAK	29
	A. Ikuspegi makro eta mikroak uztartuz	29
	B. Praxi kognitiboa	30
VII.	EZTABAIDA TEORIKOA. Gizarte mugimenduen paradigmaren uztarketa: <i>Ideologikoki Egituratutako Ekintza</i>	33
VIII.	ONDORIOAK	46
IX.	BIBLIOGRAFIA	49

II. SARRERA

Hurrengo lerroetan gizarte mugimenduak izango ditugu hizpide, hain zuzen ere ekintza kolektibo mota hau ikertzeko dauden erremintei eta ibilbideei arreta berezia jarriko diegu. Lehenengo ikerketetan gizarte mugimenduen fenomenoaren aspektu negatibo bezala kontsideratua izan bazen ere, bere izaera, teorialarien artean aldatuz joan da, gizarte mugimenduen ikerketa soziologiaren barruan espazio berezia hartzen zuen bitartean. Izan ere gizarte mugimendu bat, ekintza kolektiboa den heinean, sistema politikoan eragiteko eta bere baitan sortzen diren hutsune eta gabeziak agerian uzteko garatzen da.

Hortaz beharrezkoa da kontutan hartzea errealitate politikoa eta politikotasuna bera, dinamismo egoera batean ematen direla eta, gatazka eta aldaketa dinamika horren elementu zentralak direla. Fenomeno politikoen ikerketa, beraz, ezin da egonkortasunean oinarritu, fenomeno horien ikerketa ezin da subjektu-objektu logikaren baitan kokatu, gizarte mugimenduak subjektuaren parte ere badirelako. Angel Callek dioen moduan, gizarte mugimenduek eta fenomeno honen ikerketek mundura gerturatzean (paradigma orokorrak, teoria zehatzak...) eta, egoera "injustuak" hautematean, eragiteko gaitasuna duen testuinguru kultural eta politiko bat partekatzen baitute (Calle, 2007).

Lan honen bitartez, gizarte mugimenduen inguruan idatzi dena eta teorizatu dena kontutan hartzeaz gain eta, eginda dagoen ibilbidea gogoratzeaz gain, azken hamarkadan bistaratu diren bestelako bideak aztertuko ditugu, batez ere teoria klasikoek ahaztuta utzi zituzten hainbat kontu berreskuratzeko ahaleginak egingo dituzten bideak. Maila teorikoan kokatuko dugu lan honen hurbilpena, gizarte mugimenduen fenomenoaren ikerketa zabalean gure mapa propioa marrazteko beharrezkoak diren baliabideak finkatuz. Lan honen bitartez, gizarte mugimenduak bere osotasunean kontutan hartuko dituen teoria baten oinarria finkatzea izango da helburua, hau da, etorkizun batean, ia da dauden erremintekin gizarte mugimenduen teoria bat garatzeko lehen pausuak ematea.

Bat egingo dugu gizarte mugimenduen ikerketa klasikoaren baitan identitatea eta ideologiaren presentzia falta dela baieztatzen duten teoriekin. Egiturazko aspektuak, antolakundearenak, ekintza berarenak, ekiteko gaitasunarenak... oso landuak daude, gizarte mugimenduen funtsezko alderdiak direla ezin du inork ukatu; baina beste autore askok dioten moduan, aspektu horiek martxan jartzeko beharrezkoa duten pizgarria ideologia eta identitate kolektiboa dira. Aspektu estruktural eta ideologikoak elkar konektatuta daude, bata bestaren beharrezkoak daude. Ideia honen aitzindaritzak Zalden baitan kokatzen da, bere azken ekarpenean Ideologikoki Egituratutako Ekintza kontzeptuaren teorizazioa gauzatu baitzuen. Kontzeptu honekin batera gizarte mugimenduen agenda zabaltzeko beharrezkoak litzatekeela hobesten du, honen inguruan kritika batzuk jasotzen diren arren.

Lan honen oinarria gizarte mugimenduek dituzten bi aspektuak banaezinak direla da. Gizarte mugimendu bat sinesmen eta ideologia baten inguruan garatuz doa identitate kolektibo bat sortzen delarik, honekin ekintzarako marko eta espazioak garatu ahal izateko. Alderantziz berdin, ekintzak eta antolakundeak sortzen diren bitartean identitate kolektiboa eta, balore konkretu batzuen gainean

garatzen diren sinesmen partekatuak indartzen dira. Ezin dira bide ezberdinetatik ikertu, gizarte mugimenduen fenomenoak ulertzeko bi aspektu horiek beharrezkoak ditugu.

Lan honen garapenean ia da aipatu dugun Ideologikoki Egituratutako Ekintza kontzeptuaren inguruan arituko gara, gure mapa osatze aldera kontzeptu honen ekarpena eta jaso zituen kritiken zehaztasuna aintzat edukiko ditugu. Baina argi utziz etorkizun batean, atera diren ideiekin eta, habiatu dugun analisiarekin jarraitzeko bidea marraztuta dagoela soilik; eta etorkizuneko lanetan bideari ekitea besterik ez dela falta kontutan hartuz.

III. GIZARTE MUGIMENDUEN INGURUKO HURBILPEN BAT

A. Gizarte mugimenduen definizioa

Gizarte mugimenduak definitzen hasteko, kontzeptuen hierarkizazioan gorago kokatzen den kontzepzio batekin hasi behar dugu: ekintza kolektiboa. Hain zuzen ere ekintza kolektiboa agertzen da ingurune orokorrean aldaketak gertatzen direnean eta norbanakoak beste eragin handiko norbanakoekin elkartzean, hauek euren indarrak gehitzen baitituzte eliteen, autoritateen eta euren antagonista sozialen aurka jotzeko. Konfrontazio hauek historiaren hastapenetatik gertatzen dira, [botere harremanak gertatzen direnetik, eta botererik ez duten esparruek boteretzeko prozesuak hasten dituztenetik]. Baina antolakundeak, koordinazioaren eta interakzioaren mantenua, gizarte mugimenduek egiten duten ekarpen zehatzak dira, garai modernoaren asmakuntza bat, Estatu modernoarekin batera jaio zena (Tarrow, 2012: 31-32).

Ekintza kolektiboa gauzatzeko beharrezkoa da horretarako aukera politikoak agerikoak izatea, normalean horietaz baliatzen ez diren aktoreek interbentzio kolektiboari ekiteko erabil ditzaten. Mugimendu hauek parte hartzea ekintza kolektiboaren bitartez gauzatzen dute, enfrentazio egoerak sortuz. Ekintza hauek sare sozial egituratuen baitan kokatzen badira eta sinbolismo kulturalaz baliatzen badira, euren aurkariekin interakzio iraunkor batean murgiltzen dira, eta gizarte mugimenduan bihurtzen dira. Edozein ekintza ezin da gizarte mugimendu kontsideratu, soilik sare sozialetan eta ekintza kolektiboko markoetan oinarritzen diren, eta aurkari boteretsuen aurka desfioak mantentzeko gai diren ekintza politikoen sekuentziak bezala ulertu behar ditugu gizarte mugimenduak. Hala ere ekintza kolektibo forma guztiak ekintza politikoaren unibertso zabaletik eratorriak dira (Ibídem, 2012).

Baina ekintza kolektiboa ezin dugu errealitate sozialean dagoen odei solte bat izango balitz bezala aztertu, bide honetatik marraztu zuen Sztompka (1995)¹ bere ekarpena. Autore honek plazaratu zuen kezka eta kritika konstruktiboa, ekintza kolektiboa egituren eta agentziaren arteko elkar eragin batetik eratorria dela da. Autore honek errealitate soziala bi maila kontutan izanda irudikatu zuen: alde batetik egiturak, funtzionalitate osoa, eta bestetik agentzia, aktoreak, norbanakoa. Hauek identifikatzeaz gain bi hauen arteko konexioa azaldu zuen, izan ere agentziek eta egiturek harreman dialektiko bat osatzen baitute, eta ezin dira bata bestea gabe ulertu, ez eta aztertu ere. Harreman dialektiko honi ekintza kolektiboa deritzo.


Baina aldi berean Sztompkarentzat, elkar eragin horretaz aparte, egiturengan eta agentziarengan eragina duten ingurune naturala eta kontzientziaren ingurunea oso aintzakotzat hartu zituen. Ingurune naturala norbanakoek eta egiturek elkar eragiten duten baldintza naturalei egiten die erreferentzia, kontzientziaren arloak aldiz, ideologia, sinboloak, tradizioak, sinesmenak... ditu kontutan. Baina eragindua dagoen elkar eragin honi beste aldagai bat gehitu zion Sztompka, interakzio honetan

¹ Sztompka, P. (1995). *Sociología del cambio social*. Madrid: Alianza Editorial. Liburu honen bitartez Sztompka aladaketa sozialaren inguruko hausnarketa bat eskaintzen digu. Lan honetan erabili den atala hamabostgarren kapitulua da: *El devenir social: la esencia del cambio histórico*. (239-258 orr.)

historiak duen eragina hain zuzen ere. Edozein egoera, prozesu historikoak duen eboluzioaren emaitza da, emaitza hori prozesu historiko baten bitartez etorkizuneko egoera batean bihurtuko den bezala.

Azkenik Sztompkak bere testuan definitu eta konektatu zituen dimentsio guzti hauek mugimenduan paratu zituen. Gizartea ez dago modu partikularrean eraikia, baizik eta mugimenduan dauden mekanismoak baditu, eta hauen bitartez gizarteak aldaketak pairatzen ditu. Errealitate sozialek aldaketa esanguratsuak jasaten dituzte gizartean ematen diren aldaketengatik. Sztompkak proposatu zuen aldaketa soziala, errealitatearen maila eta dimentsio ezberdinak inguruneekin (naturala eta kontzientziarena) konektatzen direnean garatzen da (Sztompka, 1995). Azken batean Sztompkak “dinamika erradikaleko perspektiba” bat proposatu zuen, bertan gizartea etengabe mugimenduan ulertzen baitzuen.

Irudia 1: Sztompkaren EKINTZA KOLEKTIBOA, ikaslearen moldapenarekin



Iturria: Sztompka, 1995

Berriro ere Tarrow gogoratuz, ekintza kolektiboaren irudikapena hainbat modutan ikusi genezakela azaldu zuen, normalean instituzioen eremuetan agertzen da eta, talde egonkortu eta egonkortasuna bera mantentzean diharduten taldeen eskutik dator. Baina ekintza kolektiboa, ekintza liskartsuan bihurtuko da instituzioetara sarbidea mugatua duten taldeek gauzatzen dutenean, aldarrikapen berrien izenean talde bat altxatzen denean, eta batez ere ekintza horrek beste batzuei edo autoritateei mehatxu bat suposa dakiekenean. Ekintza kolektibo liskartsua gizarte mugimenduen oinarria da (Tarrow, 2012). Oro har gizarte mugimendu guztiak ez dituzte praktika bortitzak eta estremistak erabiltzen, baina daukaten errekurso nagusienetako bat da. Hala ere ez da bakarra, gizarte bakoitzeko baldintza historiko, kultural eta boterearenak ekintza kolektiboa determinatzen dute, baita alderantziz ere. Zentzu honetan, norbanakoek boterea dute boteretsuak desafiatzen dituztelako,

elkartasuna pizten dute eta gizartearen esparruek zenbait egoera eta kultura nazionalaren espazioetan esanahia lortzen dute (Tarrow, 2012).

Aztergai dugun lan honetan, ekintza kolektiboaren parte diren gizarte mugimenduak ekintza politikoen bilduma bat direla esan dezakegu, hauek barne sare sozialetan eta ekintza kolektiboaren markoetan oinarritzen dira, ekintza hauen bitartez boteretsuen aurka desafioak mantentzen dituztelarik (Tarrow, 2012: 33). Ekintza kolektibo liskartsua gizarte mugimenduen oinarria da, honek ez du esan nahi soilik protestarako bideratuak daudela; gizarte mugimenduek antolakundeak sortzen dituzte, ideologiak garatzen dituzte, gizartea sozializatu egiten dute... Antolakundeetan parte hartzen dutenek ekintza liskartsua erabiltzen dute aukera politikoez baliatzeko, jendea biltzeko, identitate kolektiboak sortzeko eta aurkarien aurka mobilizatzeko. Modu berean, baldintza historiko, kulturek ekintza kolektiboa mugatu egiten dute.

Beste definizio bat ematearren, eta beste ikuspuntu bat ekartzearren, Larañak Melucci-ren definizioa birmoldatu zuen, eta zioen gizarte mugimenduak ekintza kolektiboaren modu bat direla. Gizarte mugimenduak elkartasunaz baliatzen dira aldaketa sozialak ekiditeko edo bultzatzeko. Euren existentzia hutsak errealitatea hautemateko modu bat dira, izan ere hauek normatibotzat ematen den errealitatearen aspektu bat eraldatu nahi baitute; sistema normatiboaren mugen eta, euren ekintza garatzen den harreman sozialen arteko haustura bat suposatzen dute. Gizarte mugimenduek gizartea arau eta legitimitate berriak sortzeko ahalmena daukate (Laraña, 1999: 127).

Gizarte mugimenduen definizioarekin bukatzen joateko, eztabaidan dagoen kontzeptu bat ekarriko dugu, gizarte mugimendu "berrien" kontzeptua hain zuzen ere. Azken urteotan asko hitz egin da gizarte mugimendu berrien inguruan. 60. eta 70. hamarkadetako kritika kulturala izan zen gizarte mugimenduei pizgarria eman ziena, mobilizazio sozialaren prozesu zabal bat bezala. Promesa materialen eta modernoak bete ez zirela kontutan harturik, garai haueko gazteek gizartearen zentralitate materiala kritikatu eta iraultza kulturalaren alde egin zuten. Hala ere, interes sozialak hareago kokatzen ziren: ingurugiroan, erradiazio nuklearrean, identitate pertsonalean ...

Zahar / berri eztabaidaren baitan, Brand soziologo alemaniarrek modernizazioari egiten zaion kritikaren eta, gizarte mugimenduen loratzearen artean harremana ezarri zuen. Izan ere modernizazioari egiten zaion kritikan agertzen da aldaketa soziala. Hau da, aldaketa soziala garai batean gailentzen diren munduaren kontzeptzio zehatzen konfigurazioa da, ideiak, emozioak, beldurrak, itxaropenak... Aldaketa sozial honek, *Zeitgeist*-ek, arazo jakin batzuen aurrean sentsibilitate zehatz bat eragiten du, portaera politikoaren bidea markatzen du, energia psikosoziala kanporantz (publikorantz) edo barrurantz (pribaturantz) zuzentzen du... Modu honetan gizarte mugimenduekiko jarrera positiboa sorrarazi dezake, baina baita blokeatu ere.

Bestetik, Brand-ek defendatuko du gizarte mugimendu berrien mobilizazioen zikloek krisi kultural orokor baten fase ezberdinekin bat egiten dutela. Hori horrela izanda, mendebaldeko demokrazietan, 1950 eta 1980 artean, gertatu ziren jarrera sozial batzuen sekuentzia bat marrazten du Brand-ek. 50. hamarkadan kontserbadurismoa zen nagusi balore pribatu eta materialak gailentzen zirelarik, izan ere, hazkunde eta bizi maila handitu zen; ondoren erreformismoren gogoia agertu zen, teknokratekin

batera. 60. hamarkadan inultso kultural-iraultzailearen baikortasunak eta erradikaltasun moralak aurrea hartu zuten, interes pertsonalak maila publikora igaro baitziren. 70. hamarkadan barealdi batera igaroz, krisi kontzientzia eta jarrera antimoderno ezkorrak gailendu ziren, itxaropen utopikoek kale egin zuten eta joera dogmatikoa hartu zuten. Azkenik, 80. hamarkadan jarrera neokontserbadore eta postmodernoak garatu ziren. Modernizazioaren kritikak zorrotasuna galdu zuen. Mugimenduen interesak alderdiengandik asimilatuak izan ziren eta, hein handi batean, instituzionalizatuak.

Hau guztiarekin eta Brand-ek egiten duen analisiarekin esan genezake gizarte mugimendu berriek ez dutela "berri" izateren ezaugarri berezirik, krisi kulturaletik edota modernitateari egiten zaion kritikatik sortutako mobilizazio joera bat bezala irudikatu baitezakegu garai bakoitzean agertzen diren mugimenduak. Gizarte mugimendu zaharrak edo gizarte mugimendu berriak ez daude, berriz, mobilizazio zikloak daude eta ziklo bakoitzean gizarte mugimendu berritzaileak agertu daitezke, garai bakoitzaren modernitate faseari kritika eginez. Hortaz Brand-ek gizarte mugimenduei izaera ziklikoa atxikitzen die.

IV. GIZARTE MUGIMENDUEN IKERKETAREN TEORIA NAGUSIAK

Honako atal honetan gizarte mugimenduen inguruan egin diren azterketetan zentratuko gara, hain zuzen ere gizarte mugimenduak aztertze kontutuan izan diren korranteetan. Azterketa hauek 60. hamarkadatik aurrera garrantzia asko hartu zuten paradigma eta izaera ezberdinak garatzen joan ziren heinean. Hamarkada honen bukaeran eman zen gizarte mugimenduen hazkundeak eztabaidagai batzuk mahaigaineratu zituen, eta fokatze batzuk sortu ere bai. Fokatzeak 70. hamarkadatik sortu baziren ere, oinarri intelektuala 60. hamarkadan kokatzen da. (Della Porta & Diani, 2009). Oro har esan dezakegu gizarte mugimenduen azterketen korranteak, gizarte mugimenduak eta mobilizazioen olatuak sortzen ziren heinean agertzen zirela.

Fokatzeen bereizketa sakonean sartu haurretik aipatzekoa da gatazka sozialaren interpretazioa gauzatzeko bi modelo teoriko nagusi egon zirela. Alde batetik modelo marxista (Europarra), marxismoak sortu zituen atsekabeak gizarte mugimendu berrien inguruko perspektiba bat garatzea ahalbidetu zien, izan ere gatazken oinarri estrukturalen transformakuntzekin arduratuak baitzeuden. Ekintza kolektiboen ZERGATIA (*why?*) aztertzea zuten helburu (Melucci, 1982). Bestalde batetik, estruktural-funtzionalistaren (EEBBetan garatua) modeloa; estruktural-funtzionalisten kritika hiru perspektibatik sortu zen: portaera kolektiboa, mobilizazioen errekurtsua, prozesu politikoak. Ekintza kolektiboen modua –NOLA (*how?*)- aztertzen duena, alegia (Melucci, 1982).

Hala ere, garapen teoriko hauen ezberdintasuna ez da soilik Ipar Amerikar eta Europar tradizio intelektualean oinarritzen. Ezberdintasunaren beste faktore bat ikerketa objektuena da. Della Porta eta Dianik euren eskuliburuan ziotenari jarraiki, 60. hamarkadatik aurrera sortu ziren mugimenduak eta ekintza kolektibo ez instituzionalizatuak ikertu zituzten perspektiba analitiko nagusiak ikusiko ditugu. Perspektiba hauek ez dute bata bestea baztertzen, osagarriak dira. Gizarte mugimenduak norabide ezberdinetatik jorratzen dituzte soilik.

Ilido honetan, lehenik eta behin gizarte mugimenduen ikuspegi arrazionalak ikusiko ditugu, portaera kolektiboaren arrazionalizazioaz teorizatu zuten autoreak alegia, hauek indibiduen gizarte mugimenduetan parte hartzea aztertu zuten. Ondoren, 70. hamarkadan, sortu ziren mobilizazio eta gizarte mugimenduekin batera gorakada nabarmena izan zuen errekurtsuen mobilizazioen fokatzeaz arituko gara. Hauek bestalde, portaera kolektiboa maila makro batetik aztertu zuten, norbanakoaren azterketan zentratu gabe. Hamarkada honetan ere bai, baina identitatearen logika batean zentratuago Gizarte Mugimendu Berrien paradigma jaio zen. Hala ere beranduago bi korrante hauen sintesi bateranzko joera agertu zuten hainbat autoreek, eta metodologia berri bat garatzeko ahaleginak egin zituzten. Azkenik 90. hamarkadarekin batera garatu ziren gizarte mugimendu “berriek” gizarte mugimenduen analisiari egin zioten ekarpena ikusiko dugu (Cohen & Arato, 2001; Della Porta & Diani, 2012; Ibarra & Tejerina, 1998; Laraña, 1999; Riechman & Fernández Buey, 1995; Santamarina Campos, 2008).

A. Portaera kolektiboa, Chicagoko Eskola eta ikuspegi arrazionalak.

50. hamarkadara arte gizarte mugimenduekiko ikuspegia ezkorra bazen ere 60. hamarkadatik aurrera irudi hori aldatuz joan zen, honekin batera hauen inguruan zeuden ikuspegi teorikoen kopurua handituz. Korrante honek bi **portaera politiko** mota bereizten zituen, alde batetik portaera instituzionalizatuak eta bestetik, portaera ez instituzionalizatuak (portaera kolektiboak deiturikoak). Azken hauek portaera ez konbentzionalak aintzat hartzen zituzten, hau da finkatuta dauden arau sozialengandik gidatzen ez diren ekintzak. Egoera hauek ezegonkortasunetatik sortzen dira, tentsioek, atsekabeek, frustrazioek indibidua portaera kolektiboan parte hartzera bultzatzen dute. Parte hartze honek ziklo batzuen bitartez sortzen da eta hauek mugimendua osatzea ahalbideratzen dute (Cohen J. , 1985).

Portaera kolektiboaren barruan 60. hamarkadan bi pentsamendu ildo garatu ziren, alde batetik estruktural funtzionalismoa eta bestetik elkarreragin sinbolikoa. Lehenengoak, estruktural funtzionalismoak ikuspegi makrosozialago batetik, portaera prozesu estrukturalengandik eraginda zegoela aurreikusten zuen. Sistema sozial batean dauden ekintza azpigaratuak ahalbideratzen duten tentsioak aztertzen ditu pentsamendu korrante honek. Horrela laburbildu zituzten Riechman-ek eta Fernánde Buey-k (1995) Smelser-en (1962) hitzak.

Badaude beste autore batzuk, teoria psikologikoak eta portaera indibiduala gizarte mugimenduak azaltzeko aintzat hartu zituztenak. Hauek zioten gizarte mugimenduak, aktoreek beste subjektu sozialekin harremanetan garatzen dituzten sentimenduetatik eratorriak direla. Honen aurrean, James Coleman-ek gogoratu zigun: automatikoki frustrazio egoerek, estutasunek, deserrotzeek, krisi sozialek matxinadak sortzen dituztela baieztatzen duen hipotesia, matxinada portaera indibidualen batuketara mugatzen baita (Della Porta & Diani, 2009).

Hala ere, biak ala biak portaera kolektiboaren baitan kokatzen dira, eta eraldatze handi eta azkarren prozesu batean honako agerpena egin dezakete: alde batetik, instituzioek eta kontrol mekanismoek kohesio soziala mantentzeko dituzten zailtasunak agerian uztea; eta bestetik, krisien aurrean erreakzionatzeko ahaleginak egitea, sinesmen partekatuen bitartez elkartasun kolektiboaren printzipioak birsortuz (Della Porta & Diani, 2009).

Portaera kolektiboaren ideia bainan, 20. hamarkadan **Chicagoko Eskola** sortu zen, portaera kolektiboa bera, soziologiaren espezializazio batean bihurtzen zelarik. Bertako autoreek (Robert E. Park eta Ernest W. Burgess) fenomeno kolektiboak krisi sozialen islapen soil bat ez direla azpimarratu zuten, kontrara, hauek arau eta elkartasun berri batzuk sortzen dituztela zioten; gizarte mugimenduak aldaketaren giltza bezala ulertuak izan behar direla uste zuten. Beranduago agertuko diren autoreak, gizarte mugimenduen ikerketan ezagunago egiten zaizkigunak izan ziren: Blumer, Turner eta Killian, Gustfield. Portaera kolektiboa aldaketari dagokion portaera bezala definitua izan zen. Ekintza soziala gauzatzeko esanahien sistemak oinarri nahikorik ahalbideratzen ez dituenean, egoera injustu bezala definitzen duten arau berri batzuk sortzen dira, eta ekintza justifikatzen dute. Ia da definitutako eta ezarriak dauden arauetatik kanpo ematen den aktibitatea denez, portaera kolektiboa arauetatik haratago kokatzen da. (Della Porta & Diani, 2009).

Gizarte mugimenduen soziologiak eskola honi asko zor dio. Lehenengo aldiz mugimendu kolektiboak ekintza politiko bezala definituak izan baitziren, beharrezko aldaketa sozialak bultzatuz.

Bestalde batetik, 70. hamarkadan soziologo amerikar batzuk ekintza kolektiboa aurrera eramateko beharrezkoak diren errekurtsoen mobilizazioa ahalbideratzen duten prozesuak ikertzen hasi ziren. Euren ustetan, mugimendu kolektiboak ekintza politikoaren forma konbentzionalen estentsio bat besterik ez dira. Aktoreek, ekintza kolektiboaren modu ezberdinetan, euren interes pertsonalaren arabera jarduten dute. Motibazioek, sentimenduek, helburu komun batzuek ez dituzte indibiduoak ekintza kolektiboan parte hartzera bultzatzen, irabazi pertsonal baten itxaropenak baizik. Ikerketa hauetan planteatu zena, gizarte mugimenduetan parte hartzeak, koste eta benefizioaren ebaluazioarekin duela zerikusia zen (Riechman & Fernández Buey, 1995).

Gizarte mugimenduen ikerketaren korrante honen arabera ekintza kolektiboa **ekintza arrazionala** da, antolatua eta gurarizkoa. Perspektiba honen arabera, ekintza kolektiboa, gizarte mugimendu baten garapenerako beharrezkoak diren interakzio estrategikoengandik eta, errekurtsoen presentziagatik eragindua dagoen koste eta benefizioen akumulazio batetik dator. Fokatzeko arrazionalistetan, mobilizazioa, ongizatea bilatzeak ematen duen satisfazioa baino zerbait gehiago balitz bezala azaltzen da. (Della Porta & Diani, 2009).

Erreferentziatzen ditugun bi testu hauek (Riechman & Fernández Buey, eta Della Porta & Diani) Mancur Olsonen (The Logic of Collective Action, 1965) ideietan oinarritu ziren gizarte mugimenduen ikuspegi arrazionala azaltzeko. Olsonen zioen gizabanakoaren edozein ekintza logika egoista batetik abiatzen dela (*free-rider*), hau da, arrazionalitate indibiduala erabiltzen duela irabazi propioak eskuratzeko. Norbanako bati ekintza batek suposatuko dion kalterik txikiena eta irabazirik handiena izango du kontutan ekintza kolektiboan parte hartzeko. Beraz, Olsonen ondorioztatu zuen ekintza kolektiboak zentzua izango duela ekintza indibidualean oinarritzen bada, norbanakoek parte hartuko dute indibidualki errentagarria bazaie.

PORTAERA KOLEKTIBOAREN KRISIA ETA IKUSPEGI ARRAZIONALAREN AZALPEN EZA

Portaera kolektiboaren ikuspegiak, 60. hamarkadaren bukaeran sortu ziren mobilizazioak azaltzeko zailtasunak agertu zituzten, izan ere ikasleen eta "ezker berriaren" desfioek ez zuten euren teoriekin bat egiten: portaera bakanak, isolatuak, zatikatuak baitziren. Garai horretan garatu ziren mobilizazio horiek bestelako helburu eta motibazioak zituzten. Portaera kolektiboaren modeloa ez zen egokia gizarte mugimenduen (berrien) denboraren plangintza, izaera kognitiboa, jokabidea edota aktoreen helburuak azaltzeko. Mugimendu hauek ez zuten krisi ekonomikoen aurrean edota kolapso ekonomikoen aurrean erantzun bat ematea helburu. Bestelako muga zehatzagoak zituzten, balore eta interes orokor artikulatuak, baita estrategia zehatz eta planifikatu bat ere (Cohen J. , 1985).

Nahiz eta zailtasun andanekin aurkitu, portaera kolektiboaren teoriak proposatzen zuen bidetik, ikerlariak 60. hamarkadako ikasle matxinadak azaltzen saiatu ziren, horretarako gabezi erlatiboaren modeloaz baliatu ziren. Hauek sistema sozial batean dauden desberdintasunek eta banaketa

desorekatuek *frustrazio* egoera bat sortzen dutela ulertzen zuten, eta ondorioz ezarritako interesen deslegitimazio prozesua ematen dela. Talde *frustratuek* eskariak egiten dituztenean eta hauek ezarritako interesen jabeen erresistentziarekin topo egiten dutenean sortzen da gatazka. Frustrazioaren ideia hau Ted Gurr-en “gabezia erlatiboaren” ideiarekin lotzen da, “gabezia baino, zein puntutaraino uste dugu, daukaguna merezi duguna baino gutxiago dela (Gurr, 1970). Ted Gurr-ek bere eskema sozio-psikologikoan, egoera ekonomiko edo sozial kaltetsuengatik berpiztutako gabezi erlatiboazko sentimenduek biolentzia politikoa ekartzen dutela zioen, hau da, frustrazioak eraso eragiten du.

Ikusi bezala, gizarte mugimenduen inguruko ikerketek geroz eta arazo gehiagorekin topatu ziren hauen inguruko teorizazio bat gauzatzeko. Batez ere, arazo hauek 60./70. hamarkadetan agertu ziren, gizarte mugimendu “berriak” sortzen hasiak zirenean, paradigma klasikoek ez baitzuten jakin mugimendu berriei eta testuinguru berriari azalpenik ematen. Garai honetan sortu ziren mugimenduak ez ziren krisi ekonomikoen erantzuna izan, ez zuten oztopo normatiborik suposatu, ez zituzten interes, balore eta helburu zehatzak oinarritzat hartu, ez eta estrategien kalkulu arrazionalaz baliatzen mobilizazioak aurrera eramateko. 68ko maiatzean altxatu zen ikasle mugimenduak parte hartzeagatik eta errekonozimenduagatik borrokatu zuen, borrokaren generazio berri bezala kontsideratuz, baztertuen matxinada. Baina denbora joan ahala, ohartu ziren “gizarte mugimendu berriak” deituriko fenomenoari ezin zitzaiola “baztertuen matxinada” bezala izendatu, izan ere zentroetako sektoreek burutzen zuten ekintza kolektiboa baitzen. Beraz, etapa berri bat irekitzeaz gainera, gizarte mugimenduen ikertzaileek hauen inguruko definizioa zabaldu behar zutela ikusi zuten eta bidenabar gizarte mugimenduen kontzepzio ezkorak zeharo baztertu behar zituztela; eta horrela egiten zuten (Riechman & Fernández Buey, 1995).

Gizarte mugimenduen ikerketek XIX. mendeko gatazka sozialak izan zituzten hizpide, hain zuzen garai honetan oso nabarmena izan zen aurretik aipatu dugun bi tradizioen desberdintzea. Tradizio amerikarra alde batetik eta europarra bestetik. Ikerlari amerikarrek, errekurtsoen mobilizazioan oinarriturik, errekurzioismo psikologikoak garatu zituzten eta ekintza kolektiboaren inguruko teoriak baztertu zituzten. Ikerlari europarrek berriz, marxismoak garatutako estrukturalismoarekin eta bertsio zeharo akademikoekin nekatuta, gizarte mugimenduen inguruko teoria berria garatu zuten (Riechman & Fernández Buey, 1995). Hala ere esan bezala, biak 60. hamarkada bukaeran jaiotako mugimendu berrien olatuarekin batera garatu ziren.

B. Tradizio amerikarra, baliabideen mobilizazioa

Baliabideen mobilizazioaren fokatzek gizarte mugimenduek jarduten duten egoera politiko/instituzionalari erreparatzen dio. Hain zuzen ere, protestaren eta aktore politiko/instituzionalaren arteko harremanean zentratzen da. Gizarte mugimenduek ordenu sozial jakin bat desafiatzen dute, eta ordenu horretan posizio egonkor bat duten aktoreekin hartu emanak izaten dituzte. (Della Porta & Diani, 2009). Azken batean, baliabideen mobilizazioaren korranteak aurreko portaera kolektiboa kritikatzu indibiduoaren analisisa alboratzen du eta antolakundearen analisisan

zentratzeari ekiten dio. Korrante honetako ikerlarien lanetan esan gabe doa indibiduen atsekabea eta gizarte guztietan dauden gatazka sozialak oso garrantzitsuak izan direla. Ikerlari amerikarren aburuz gizarte mugimenduen ikerketetan garrantzitsuena antolakundeak osatzeko beharrezkoa den mobilizazio ahalmen zen (Riechman & Fernández Buey, 1995).

Fokatze honentzako gizarte mugimenduetako ekintzak ez dira irrazionalak, ezta bat-batekoak ere. Paradigma honetako autoreek interesa antolakundeetan paratzen dute, errekursoen mobilizazio ahalmenean eta faktore eratzaillean. Riechmann eta Fernández Buey-k (1995) aipatu zuten bezala, fokatzeko honen antolakundearen perspektiba, mugimenduak antolakundeekin erlazioatzera bideratzean dago. Azken batean baliabideen mobilizazioaren korranteak gizarte mugimenduaren baitan dagoen antolakunde nola sortzen den, berme publikoa nola mobilizatzen den, eta antolakunde horien taktika politikoa nola aurrera eramaten den azaltzen du (Dalton & Küchler, 1992).

Baliabideen mobilizazioaren teorialariek aitortzen duten moduan, paradigma hau antolakundeetan, mobilizazio prozesuetan, estrategietan eta helburuetan gertatu ziren berrikuntzak azaltzen saiatzen da. Azken batean korrante honen helburua sistema politikoaren parte hartze konbentzionaletik kanpo kokatzen direnek ekintza kolektiboaren bitartez duten arrakasta edo porrota azaltzea da (Cohen & Arato, 2001: 565-566).

Baliabideen errekursoekin batera prozesu politikoa aktore berrien eta tradizionalen arteko interakziorantz zuzentzea lortu dute. Zentzu honetan, gizarte mugimenduak ez dira baztertuak dauden eta anti-instituzionalak diren ekintzak. Bide bat irekitzen da mugimendu garaikideen dimentsio politikoaren interpretazioan. Oso garrantzitsua da prozesu politiko bakoitza aztertzea, eremu bakoitzean garatzen diren mobilizazioen ezaugarriak ongi aztertuz (Zubiaga, 2007).

Cohen eta Arato-k laburbildu zuten moduan (2001), Charles Tilly-k ekintza kolektibo modernoek gizarte zibil eta politikoen barruan espazio sozial eta politiko autonomoen garapena suposatzen dutela azaldu zuen. Baina enfasi berezia aukera politikoetan eta inplikazio estrategikoetan paratu zuela zioten. Hau da, botereagatik borrokatzen duten talde antolatuek eta hauen mobilizazio prozesuaren dimentsio nabarmenenak ikuskatzen zituela. Prozesu politikoek fokatzeko egora politiko instituzionalari arreta berezia jartzen dio. Ordenu politikoaren desafioan, gizarte mugimenduek politikan posizio egonkor eta komodo bat dutenekin elkar eragin bat baitute.

Charles Tilly-k, bere liburu famatuenean, *From mobilization to revolution* (1978), gizarte mugimenduak prozesu politikoak bezala ulertzeko bidea ireki zuen, bertan mobilizatzeko interesak, eta ekintza kolektiboak sortzeko aukerak bezalako aldagaiak sartu zituen. Haukin batera ere ekintza kolektiboa ulertzeko beste hiru osagai: antolakunde, mobilizazioa eta ekintza kolektiboa bera. Charles Tilly-k bere ekarpen guztien bidez, hasierakoekin batez ere, ekintza kolektiboak historiaren eta soziologiaren baitan ikusmiren berezi bat bereganatzea lortu zuen, aldaketa sozialaren analisi esparruetan bide bereziak irekiz.

Hala ere ikerketaren fokatzeko estruktural hauek kanpoko egoeraren ezaugarriak (mugimenduen garapenerako beharrezkoak direnak) definitzerako orduan, kontzepturik garrantzitsuena Aukera

Politikoen Egitura da². Autore askok bide honetatik gauzatu zituzten ikerketa enpirikoak honako aldagai hauek kontutan hartu zituzten (Della Porta & Diani, 2009): hauteskundearen ezegonkortasuna, sistema politikoen itxiera edo irekiera, aliantza politikoen ezegonkortasuna eta aliatu potentzialen posizio estrategikoa, besteak beste.

Oro har, boterearen banaketa funtzionalarekin zerikusia duten ezaugarriak eta protesta moduak ikertu dira. Sistema politikoen ezaugarri egonkor zein ezegonkorak eragina dute protesta zikloen ekintza politiko instituzionalizatu gabeen gorakadan, baita ekintza hauek testuinguru historiko ezberdinetan hartzen duten forman ere (Della Porta & Diani, 2012).

C. Tradizio europarra, Gizarte Mugimenduen teoria berriak. Identitatearen garrantzia

Tradizio europarra, amerikarrarekin batera, 60/70. hamarkadetan sortu ziren mugimendu berrien inguruan garatu zen. Europako gizarte zientziek gatazka sozialaren interpretazio marxistaren kritika gauzatzearen nahiarekin sortu zen, izan ere II.M.G ondorengo testuinguru sozialak kapilata-lana gatazkaren zentralitatea eztabaidan jarri baitzuen. Estratifikazio sozialaren irizpideen hazkundeak ia da ez dira errekurto ekonomikoaren kontrolean oinarritzen. Gizarte mugimenduen paradigma honek tradizio marxistaren elementu deterministak baztertu zituen. Autore askok fokatze honetan, planteamendu marxistetan oinarrituz, mugimendu garaikideen forma eta edukian zeuden berrikuntzak ikertzeaz arduratu ziren (Della Porta & Diani, 2009).

Zentzu honetan esan dezakegu ikerlari europarrek enfasia aspektu kulturaletan paratzen zutela, eta oro har, identitate kolektiboaren kontzeptua gizarte mugimenduen teorizazioen mahaira gaineratzen zutela (Santamarina Campos, 2008). Aurretik aipatutakoa hurrengo baieztatu dezake, hain zuzen ere ekintza kolektiboaren baitan garatzen ari ziren mugimendu berritzaileek garapen pertsonal, identitario eta ideologikoarekin zer ikusia zutela, ordura arteko krisi ekonomikoekin edota gatazka sozialekin baino. Mugimendu hauei Gizarte Mugimendu “Berriak” deitzen hasi zitzaizkien langile klasearen mugimenduekin, “zaharrekin”, ezberdintzeko.

Hala ere, honekin ez dugu esan nahi mugimendu hauek aurrekoekin harremana ez dutenik, baina desberdintasunak nabarmendu daitezkeela bai. Hala nola, eskaerak aspektu kultural/identitarioekin zer ikusi gehiago dute, estruktura eta agentziaren arteko bereizketa geroz eta difusoagoa den bitartean; eta protestan erabilitako ekintzak ez biolentziarenak, desobediencia zibilarenak gailentzen dira beste ekintza bortitzagoen aurrean. Gizarte Mugimendu “Berriak” aurkezten dituzten berrikuntzak honako hauetan ikus dezakegu: modernitatearekin eta garapenarekin kritikoak diren ideologiak garatuko dituztela, antolaketa egitura deszentralizatuak eta parte hartzaileak sortuko dituztela, elkartasun interpersonalaren defentsa (burokrazien kontra) aurrera eramango dutela, eta abantaila materialen aurrean espazio autonomoak aldarrikatuko dituztela (Della Porta & Diani, 2009).

² V. puntuan landuko dugu Aukera Politikoen Egitura sakonago, Agenda Klasikoaren ezaugarrien analisia egiten dugunean.

Gizarte Mugimendu Berrien Teorian ikertu zuten autoreek zioten beharrezkoa dela ekintza kolektiboaren integrazio sozialaren dimentsioa txertatzea. Ikertzaile hauek argudiatu zuten identitate kolektiboan klase ekonomikoek, kontraesan estrukturalak eta krisiek duten eraginaren kontzepzioa aktore kolektibo garaikideak ulertzeko egokia ez dela.

Paradigma honen autoreen artean Alain Touraine (1981) daukagu eta gizarte mugimenduak ez direla ordenuaren bazterketa marjinala zioen, baizik eta gizartearen autoprodukzioagatik euren artean borrokatzen duten indar zentralak direla. Gizarte industrialean dominazio klasea herritarren klasearen kontra agertzen da. Gizarte programatuan, klase sozial berriek, klase kapitalista eta langile klasea ordezkatzeko dute gatazkaren aktore zentral moduan (Della Porta & Diani, 2009).

Bestalde batetik, Claus Offe-k (1985) zioen mugimenduek ordenu sozialaren eta demokrazia ordezkatzaillearen kritika meta-politiko bat aurkezten dutela; aldi berean, demokrazia erradikal baten onerako, "politika egiteko" modu konbentzionalaren inguruko aurrekontu instituzionalak desafiatzen dituztela (Della Porta & Diani, 2009).

Beste ekarpenen artean, Melucci-k (1982) Jurgen Habermasen iruditik abiatuz: bizitzaren kolonizazioaren ideia ekarri zuen. Gizarte garaikidea ezberdinak diren sistemen multzo bat da. Ekintza zentro autonomoen sorkuntzan parte hartzen dute, integrazio estuago bat eskatzen duten bitartean, eta giza ekintzaren motibazioen kontrol bat dagoen bitartean (Della Porta & Diani, 2009).

Gizarte mugimenduak bizi sozialean estatuaren eta merkatuaren intrusioari aurre egiten saiatzen dira, indibiduoek euren identitatea definitzeko eta bizi sozial eta afektiboa definitzeko duten eskubidea aldarrikatuz, sistemaren manipulazioaren kontra. Ongizatea eta segurtasuna, babestearen izenean, estatuak egiten duten interbentzio politiko-administratiboaren kontra daude (Della Porta & Diani, 2009).

D. Aurreko bien integrazioa, sintesia. Mugimendu berriak, paradigma berriak.

Aurreko bi puntutan ikusitako tradizioen arteko ezberdintasunak agerikoak badira ere, ez zuten elkar kontrajarriak asko iraun. Izan ere, bakoitzak bere eremu geografikoarekiko atxikimendua alde batera utzirik euren artean kontaktua edukitzen hasi ziren. 80. hamarkadarako bi aldeetako teorialariek interpretaziozko bi modeloak integratzeko ahaleginak ezin zituzten, beti ere azaleratu zitzaizkien hutsuneak kontutan hartuz. Gizarte Mugimendu Berrien teorialariei egin zitzairen kritika, protestaren baldintzak ez argitzea izan zen, bestalde Baliabideen Mobilizazioari egin zitzaion kritika, nortasuna eta ideologia kontutan hartzen ez zituela izan zen, aspektu arrazionalak nabarmentzen baitzituzten soilik (Zubiaga, 2007).

Jean L. Cohenek laburbildu zuen bezala (1985), bi paradigma hauek protestaren zentzua onartzen dute, eta ekintza kolektiboan parte hartzen dutenek antolakundeetan parte hartzeaz gain, modu arrazional eta integratuan egiten dutela baieztatzen dute. Bi modeloek ekintza kolektiboaren bi maila ezberdintzen dituzte, alde batetik, ekintza aktiboago bat definitzen dute, azaleratzen dena. Eta

bestetik, ikusezinagoa dena, antolakuntza formekin zer ikusia duena, komunikazioarekin, ... Azken batean autore honek Habermasen "ekintza komunikatiboaren teoria" aintzakotzat hartuz, zioen gizarte mugimenduen bi teoria nagusi hauek ez direla kontrajartzen eta elkarren osagaiak izan daitezkeela. Bi paradigma hauen gakoa baita ekintza kolektiboaren aspektu ezberdinetan enfasia jartzen dutela. Zentzu honetan beharrezkoa da gizarte mugimenduen edota ekintza kolektiboen analisi bat egiterako orduan korrante ezberdinak kontutan izatea, bakoitzak egin ditzakeen ekarpenen ikuspuntua islatuz. Izan ere bien arteko sintesi egoki batek "izaera argitzaile eta heuristikoko hobeago bat eman diezaiokete analisiari" (Cohen J. , 1985).

Gizarte mugimenduen analisisan adituak eta arituak diren Doug McAdam-ek, John D. McCarthy-k eta Mayer N. Zald-ek (1999)³, lan ezberdinak erreparatuz, perspektiba integratu baterantz jotzeko aukera dagoela azaldu zuten. Horretarako gizarte mugimenduen sorrera eta garapena aztertu ahal izateko tradizio ezberdinetako teoriariek hiru faktore izan zituzten kontutan. 1) Aukera politikoen egitura, eta gizarte mugimenduek egituretan topatu ditzaketen mugak. 2) Mobilizazioen egiturak eta antolaketa moduak. 3) Enmarkazio prozesuak.

Aukera politikoen egituraren baitan espezialistek sistema politikoen garrantzia azpimarratu zuten. Izan ere, euren lanetan ekintza kolektiboaren aukerez, eta mugimenduek instituzioekin duten elkar eraginarekiko interes bereziaz hitz egin baitzuten. Amerikarrek gizarte mugimenduen sorrera sistema politikoen egituretan gertatzen den aldaketarekin harremanetan jarri zuten. Bestaldetik europarrek antzeko mugimenduetako egituren analisi konparatu bat egin zuten. Bi tradizioek bide beretik jarraitu zuten, gizarte mugimenduek forma bat edo beste hartzen dutela uste baitzuten, kokatzen diren testuinguru nazionalak ezartzen dizkien muga eta aukera politikoen egituren arabera.

Bigarrenik, **mobilizazioen egiturari** garrantzia eman zioten, izan ere, aurreko premisarekin soilik alde batera utziko baitzituzten mobilizazioek antolatzeko erabiltzen dituzten egitura mota ezberdinak. "Mobilizazioen egiturak dira ekintza kolektiboan parte hartzeko indibiduoak erabiltzen dituzten errenka kolektiboak". Alde batean bitartekoen mobilizaziotik gertu kokatzen ziren autoreek zioten gizarte mugimenduek ez dutela beti antolakunde formal bat osatzen, baina hauek mobilizazioaren indarra bertatik eratorria zaiela baieztatzen zuten. Bestera, prozesu politikoetatik gertuago koka genitzakeen autoreek (Tilly eta bere jarraitzaileak) alde batera uzten zituzten gizarte mugimenduak eta antolakunde formalak parekatzen zituzten teoriak. Hasikeran teoria batek bestearen kontraesana zela uste bazuten ere, denborarekin gizarte mugimenduetan adituak direnak ondorioztatu zuten ekintza kolektiboaren islapen ezberdinak eta mugimenduen antolatzeako modu ezberdinak besterik ez direla.

Bi faktore hauek, aukera politikoen egiturak eta mobilizazioen egiturak ekintzarako gaitasun bat ematen die mugimenduei. Baina ekintza kolektiboa osatzeko hirugarren faktore baten beharra ikusi zuten McAdam-ek, McCarthy-ek eta Zald-ek, hain zuzen ere esanahi eta kontzeptuen partekatzea, zeinetatik indibiduoak egoera definitzen duten. Definitzeaz gain, egoera horrengandik irainduak direla

³ Hurrengo azalpena hiru autore hauek argitaratutako liburuan batera idatzitako testuan oinarritutakoa izango da:

McAdam, D., McCarthy, J., & Zald, M. (1999). Oportunidades, estructuras de movilización y procesos enmarcadores: hacia una perspectiva sintética y comparada de los movimientos sociales. Honako liburuan: D. McAdam, J. D. McCarthy, & M. N. Zald (1999) *Movimientos sociales: perspectivas comparadas: oportunidades políticas, estructuras de movilización y marcos interpretativos culturales*. (or. 21-46). Madr: Istmo.

sentitu behar dute, eta ekintza kolektiboaren bitartez arazoa konpontzeko gaitasuna edukiko dutenaren ziurtasuna eduki ere bai. Snow eta Benford-ek izendatu zuten **enmarkazio prozesua**⁴ deritza hau.

Prozesu integratzaileak oso sakonak izan zirenez sintesirako joera agertu zuten ikerlariak, ia da ez dago ikuspegi bakarraz baliatzen den gizarte mugimenduen analisirik. Guztiak ezagupen maila integratu batetik habiatzen dira ikerketa burutzeko orduan. Ezinezkoa bihurtu da mobilizazio bat aukeraketa arrazionalaren bitartez azaltzea, norbanako batek ez duelako kostu/benefizio logikari erreparatuko ekintza burutzeko, dimetsio eta faktore gehiago sartzen baitira jokoan. Modu berean, Aukera Politikoen Leihatila irekita egon daiteke, baina gizarte zibila ideologikoki sinismen batzuk eta motibazioa garatuta ez baditu, alferrik dago irekita. Alderantziz berdin, gizartearen nortasun kolektiboa eta sinesmenak ezerezean geratuko dira Aukera Politikoen Leihatila irekitzen ez bada.

Dena den, garrantzitsua da kontutan edukitzea azken urteotan, ekintza kolektiboaren esparruak bira sakon bat eman duela. Gizarte mugimenduak ez dira norbanako talde batek burutzen duen ekintza soil bat, hauek zikloki errepikatuz, eraberrituz doaz. Garai historiko eta errealitate bakoitzaren testuinguruak zeharo baldintzatzen ditu gizarte mugimenduak eta ekintza kolektiboak. Hortaz, Ibarra eta Tejereninak (1998: 9) zioten gaur egungo gizarte mugimenduen interpretazio markoa globalizazioarena dela. Ia da boterea ez da puntu bakar batean kokatzen, dispersatu eta inbisibilizatu egin da. Sortu diren gizarte mugimendu hauek antolakuntzan, helburuetan, estrategietan, berrikuntzak planteatu dituzte. Batez ere mugimendu berritzaile hauek elkartasuna dute hizpide, eta zaharkiturik geratu diren mugimenduekin erakusten dituzten ezberdintasunak, lortu nahi dituzten helburuetan baino, horiek lortzeko planteatzen dituzten bideetan nabariak dira (Ibídem: 10-11).

Hurengo puntuetan ikusiko ditugu gizarte mugimenduen analisiaren esparruan, aurreko ideia kontutan hartuta egin diren ekarpanak. Gizarte mugimenduak bezala, euren ikerketa ere aldatuz eta eraberrituz joan da, garai ezberdinetara egokituz. Agenda klasikoa izan da, eta da, gizarte mugimenduak ikertzeko modelorik arrakastatsuenak. Agenda klasikoa McAdam-ek, Tarrow-k eta Zald-ek martxan jarri zuten fokatzeko ezberdinen integrazioa aintzat harturik, autore ezberdinek bultzatu zuten marko teorikoa. Hala ere, jaso zituen kritikak direla medio, McAdam-ek, Tarrow-k eta Tilly-k agenda klasiko horri mekanismo eta prozesu batzuk gehitu zizkieten ekintza kolektiboa mugimenduan ulertu ahal izateko.

Autore hauek aurrera eramandako integrazio hori oraindik ere zenbait aspektu kanpoan uzten zituela salatuz, bestelako ikusmira batzuk sartzen saiatu ziren gizarte mugimenduen ikerketaren esparruara. Gure lanarentzako bereziki interesgarriak direnak ikusiko ditugu, alegia, ikuspegi mikroan arreta berezia jartzen dutenak: Jasperren ekarpena eta, Eyerman eta Jamisonena.

Azken urteotan gizarte mugimenduetan kulturaren eta identitatearen paperaz asko eztabaidatu egin da, egitura eta agentziaren arteko elkarreraginean marraztu baitute ikerketa markoa. Aktore sozialek errekurtsio materialekin baita kultural / identitarioekin harremana duten testuinguru estruktural batean

⁴ Azken faktore hau gizarte mugimenduen teoriariek gutxien landu duten faktorea da. McAdam-ek, McCarthy-ek eta Zald-ek dioten moduan, agian kontzeptu honen zehaztapen zailtasunengatik.

ekiten dute. Hurbilpen teorikoaren atal honetan mikro eta makroaren uztarketaz eta pertzepzio kulturalen garrantziaz arituko bagara ere, eztabaida teorikoaren atalean gizarte mugimenduetan ideologiaren garrantziaz arituko gara.

V. AGENDA KLASIKOTIK POLITIKA LISKARTSUAREN DINAMIKARA

Aurreko atalean azaldu dugun gizarte mugimenduen analisisian egin diren korrante ezberdinen sintesi saiakerak gogoratuta, honako atal honetan McAdam-ek, Tilly-k eta Zald-ek 1999an egindako ekarpenak aintzakotzat hartuko ditugu. Izan ere euren helburua gizarte mugimenduen eredu teoriko bat garatzea baitzen. Sintesi honen bitartez ordura arte egin ziren ekarpenak analisi bakar batean barnebiltzea zen gakoa, aldagai guztiak eredu teoriko baten bitartez aztertu ahal izateko.


Arestian aipatu bezala hiru kontzeptutan oinarritzen dira: **mobilizazio egiturak**, antolakunde formalak eta sare sozial informalak dituzte kontutan; **aukera politikoak**, ekintza garatzen den egituretan eta ingurune politikoan jartzen dute atenzioa; eta **enmarkazio prozesuak**, interpretaziorako prozesuetan zentratzen dira (McAdam, McCarthy, & Zald, 1999). McAdam-ek, Tarrow-k eta Tilly-k zioten moduan (2005), 80. hamarkada baino lehen gizarte mugimenduetako teorialariek hauen aspektu ezberdinez aritzen ziren, eta ikertzeko paradigma ezberdinak erabiltzen zituzten. Hala ere, garai honetatik aurrera ikerlari amerikarrak gizarte mugimenduetako agenda bera erabiltzen hasiak ziren (paradigma amerikarra “garaile” atera baitzen –Zubiaga, 2007–), bakoitzak enfasia agendaren atal ezberdinetan paratzen zutelarik. Hala ere, gizarte mugimenduen agenda honen ekimena itsasoaren alde batean garatu bazen, europar ikerlariek ere beren lanetan oso presente izan zuten. Azken batean guzti hauen helburua gizarte mugimenduen fenomenoaren paradigma bateratu batetik ikertzea baitzen.

Agenda klasikoa deiturikoaren baitan gizarte mugimenduak ikertzen dituzten autore guztiek honako galderari erantzuten dietela zioten McAdam-ek, Tarrow-k eta Tilly-k (2005: 18):

1. Nola eragiten du eta zenbateko eragina du aldaketa sozialak honako esparru hauetan?
 - a. Aktoreen aukeretan
 - b. Komunikazioa, koordinazioa eta konpromisoa ahalbideratzen duten mobilizazio egituretan?
 - c. Esanahi partekatuak ahalbideratzen duten enmarkazio prozesuetan?
2. Zein neurritan eta nola mobilizazioen egiturak ematen dio forma aukerei, enmarkazio prozesuei eta elkar eragin liskartsuari?
3. Zein neurritan eta zein modutan aukerek, mobilizazio egiturek eta enmarkazio prozesuek ekintza liskartsuen bilduma mugatzen dute?
4. Zein neurritan eta zein modutan existitzen den bildumak artekari lanak egiten ditu, alde batetik aukeren eta elkar eragin liskartsuaren artean, eta bestetik, enmarkazio prozesuen eta elkar eragin liskartsuaren artean?

Agenda klasikoa oso garrantzitsua izan da gizarte mugimenduen ikerketaren esparruan, izan ere lan teoriko andana akuilatu baitzuten gizarte mugimenduen oinarritzko modelo teoriko bat aurkeztuz, modelo estruktural eta estatikoa izan arren (McAdam, Tarrow, & Tilly, 2005).

Irudia 2: Agenda Klasikoaren ezaugarriak



Iturria: McAdam, McCarthy, & Zald, 1996; eta McAdam, Tarrow, & Tilly, 2005

Eredu teoriko bat marrazteko ahaleginetan, Della Porta eta Dianik (2011), Tarrow-k (2012), eta beste testu batzuk jarraitu zuten logikari segituz, agenda klasikoaren ezaugarri nagusiak azpimarratuko ditugu.

A. Agenda Klasikoaren ezaugarriak

a. Mugimenduaren Aukera Politikoak

Aukera Politikoaren Egiturak –APE– ekintza kolektiboa areagotu edo deuseztatzen duen ingurune politikoari egiten dio erreferentzia. APE-k kanpoko baliabideei jartzen die atenzioa, ekintza kolektiboaren koste eta benefizioak gutxitu edo handitu egiten baitituzte. Ekintza kolektibotik at gertatzen diren aldaketa bortitzak gertatzen direnean agertzen diren baliabideak dira, ekintzarako aukerak sortzen dituztenak.

<Aukera Politikoaren Egitura> lehenengo aldiz Peter Eisinger-ek (1973) erabili zuen, McAdam-ek (1999) bildu zuen moduan, berrogei herrialdetan protestaren portaera aztertzeke asmoz. Aukera Politikoaren Egitura, taldeek sistema politikoetan eragiteko eta boterea eskuratzeko probabilitate mailari deitu zion. Kontzeptu hau prozesu politikoaren fokatzeari oso arrakastatsua izan zen (Tilly, McAdam, Tarrow, ...). Autore hauek egitura instituzionalean sortzen diren aldaketak aukera politikoak ahalbideratzen dituztela uste baitzuten, baita gizarte mugimenduen arrakasta horien menpe dagoela ere.

McAdam, Zald-ekin eta McCarthy-rekin batera koordinatutako liburuan (1999), aukera politikoaren egitura azalpen arriskutsuak jasaten dituela ohartu zen, izan ere teoriarari askok ekarpenak egiten saiatu ziren heinean modelo hau ilundu eta azalpen gabeko modeloan bihurtu baitzuten.

Hortaz, Aukera Politikoaren Egituraren baitan ekarpen andanak egin diren arren, eta gizarte mugimenduen sorreran eta garapenean agertzen diren faktore guztiak aukera politikoaren egitura

bezala kategorizatu nahi izan diren arren, arazo honen aurrean hainbat ikerlarik esanahiaren eta terminologiaren erabileraren inguruan adostu izan zuten kontsentsua islatu zuen McAdam-ek (1999). 90. hamarkadan autore ezberdinek⁵ Aukera Politikoen Egitura aldagai ezberdinen inguruan egituratu zuten, dimentsio nabarmenenak sailkatzeko ahalegin berezia eginez. Ezberdintasun terminologikoak alde batera utziz, autore hauen arteko kontsentsu maila agerikoa zen. Hauek sistema politiko baten instituzioetako egitura formala eta, egitura informalagoak, botere harremanek sortzen dituztenak bereizi zituzten.

Honela laburbildu zuen McAdam-ek aipatutako autoreengandik abiatuz, aukera politikoen egituraren dimentsioak:

1. Sistema politiko instituzionalizatuaren irekitze erlatiboaren maila
2. Eliteen lerrokatzearen egonkortasun edota ezegonkortasuna; politikotasunaren eremuan eragin nabarmena duten lerrokatzeak.
3. Eliteen artean egon daitezkeen aliatuen presentzia, edo gabezia
4. Estatuaren kapazitatea eta errepresiorako joera.

Della Portak eta Dianik (2011) aukera politikoen egituraren hausnarketa sakona egin zuten ere, eta dimentsioen bestelako sailkapen bat proposatu zuten, konplexuagoa, baina funtsean dimentsioak berdinak izanik. Aldagaiak egonkorren eta dinamikoen artean bereizi zituzten, egonkorren artean: estatuaren lurralde deszentralizazioa, boterearen dispersio funtzionala eta, estatuak duen boterearen ahalmena daudelarik. Honekin batera, beste aldagai egonkor bat antzeman zuten, fokatze estrukturalak garrantzia kendu zioten aldagaia bat: kultura politikoa. Gizarte mugimenduek sistemaren kultura politikoaren eragina dute, eta aktore kolektiboek berenganatzen dituzten estrategiak, Brand-ek azaldu zuen <Zeitgeist> -arengatik eraginduak daude (Brand, 1992). *Zeitgeist*-ek, arazo jakin batzuen aurrean sentsibilitate zehatz bat eragiten du, portaera politikoaren bidea markatzen du. Aldagaien banaketa honen aurrean esan zuten elkar eraginezko ikuspegi batetik aztertuta, testuinguru instituzionalak estrategien efikazian duela eragina, baina ez duela mugimendu batek lortuko duen arrakasta azalduko.

Bi autore hauek, egonkor mantentzeko joera duen entitate batek ezin duela protestaren (bera izaera ziklikoaren) sorketa azaldu baieztatu zuten. Instituzioen eta sistema politikoaren irekierak parte batean soilik gizarte mugimenduen sorrera eta garapena azaltzen du. Aukera Politikoen Egitura egonkorrak (instituzioak eta kultura), poliki aldatzen dira. Della Portak eta Dianik Aukera Politikoen Egituren baitan beste aldagai dinamikoagoak parte hartzen dutela ere aipatu ziguten (Della Porta & Diani, 2011: 267). Aldagai dinamiko hauek bi egituretan banatzen dira: aliatuen egituretan eta aurkarien egituretan. Lehenengoa lagunek ahalbideratzen dizkieten aukerek osatzen dute, eta bigarrena etsaiek aukeren ahultze ahaleginekin osatzen da.


Alde batetik, aurkarien egitura aktore instituzional zein ez-instituzionalak osatu dezakete. Ez instituzionalen artean oso ohikoak diren kontra-mugimenduak daude, hauek gizarte mugimenduen

⁵ McAdam-ek Brockett-en, Kriesi-ren, Rucht-en eta Tarrow-en listak konparatzen ditu. (McAdam, 1999: 54)

arrakastarekiko erreakzio moduan agertzen dira. Bestetik, aktore instituzionalen barruan agentzia estatala egongo lirateke, pisu berezia poliziagintzak duelarik. Aipatu beharra dago, agentzia estatalak aliatu bezala agertu daitekeen arren, oro har, jarrera errepresiboa berenganatzen duela (Della Porta & Diani, 2011).

Aukera politikoen egitura egonkorra geroz eta itxiagoa denean, aliatuen egitura geroz eta garrantzitsuagoa izango da, batez ere erabaki hartze eremuan presentzia duten aliatuak agertzen badira: agentzia publikoko burokratak, ongintzako antolakundeak, antolakunde erlijiosoak, interes taldeak, sindikatuak, alderdi politikoak (ezkerrekoak batez ere)...

Irudia 3: Aukera politikoen egituraren islapen grafikoa



Iturria: (Della Porta & Diani, *Los Movimientos Sociales*, 2011) liburutik abiatuta ikasleak egindako irudi grafikoa.

b. Mugimenduen Protestarako Ekintza Moten Bilduma

Ekintza motei dagokionez, Della Portak eta Dianik Tilly-ren hitzak bildu zituzten ekintza kolektiboaren bilduma definitzeko: “indibiduo ezberdinei hainbat aldarrikapen planteatzeko talde batek dituen bitartekoen multzoa” (Tilly, 1986). Tilly-k protesta motak aldi historikoaren arabera sailkatu zituen, estatu—nazioaren sorketak inflexio puntu bat suposatuz⁶. Frantses Iraultzan sortutako ekintza motak gutxi asko aldatu dira gaur egungoei erreparatzen badiegu: boikotak, barrikadak, sinadura bilketak, eta manifestaldiak oraindik dihardute, hala ere zenbait elementu berritzaile identifikatu daitezke (Della Porta & Diani, 2011).

⁶ Informazio gehiagorako Della Porta eta Dianiren testuan (2011), edo zuzenean Tilly-ren (1986) lanean.

Oro har ekintzen bildumak hiru motetan sailkatzen dira: biolentzia, ekintza konbentzionalak eta ordenuaren alterazioa. Ekintza bortitzak errazenak dira hasteko, baina oso talde murriztek parte hartzen dute ekintza mota honetan. Kontrara, ekintza konbentzionalak oso ezagunak eta konpromiso maila gutxi eskatzen dutenak dira, gehienetan eliteek onartzen dituzten ekintzak dira. Ordenuaren alterazioa suposatzen duten ekintzak errutinarekin puskatzen duten heinean eliteak desorientatu egiten dira (Tarrow, 2012)⁷.

Della Porta eta Dianiren esku-liburura bueltatuz, eurek proposatu zuten sailkapena ikusiko dugu. Autore hauek hiru sailkatzeko modu antzeman zituzten: erradikaltasun mailaren arabera, logikaren arabera, eta izaeraren arabera (Zubiaga, 2007). Hainbat ikerlarik erradikaltasun mailaren arabera ekintzak sailkatzeko *continuum* baten bidez egin ohi dutela zioten, erradikaltasun gutxiena dutenetik erradikaltasun altua dutenera: lehenengo postuan sinadura bilketak eta manifestaldietan parte hartzea egongo lirateke; bigarreanean, ekintza zuzeneko teknikak; hirugarreanean ekintza ilegal baina ez bortitzak; eta laugarreanean, ekintza bortitzak eta min fisikoa suposatzen dutenak.

Bigarrenez, ekintza motak izaeraren arabera sailkatzeak, sistema politikoak eta baloreen sistemak kontutan hartzea suposatzen du. Alde batetik gizarte mugimenduek sistema politikoen eta bere sare instituzionalen aurkako ekintzak burutzen dituzte, baina askotan, bestelako taktika eta estrategiak erabiltzen dituzte orientazio eta sistema kulturalak aldatzeko asmoz (Della Porta & Diani, 2011).

Azkenik, ekintza moten bilduma, ekintza horiek duten logikaren arabera sailka daitezke ere, hau da, ekintza horiek duten ekiteko moduaren logikagatik: kopuruaren logika, kaltearen logika eta logika sinbolikoa⁸ (Della Porta & Diani, 2011).

c. Mugimenduaren Mobilizatorako Egiturak Eta Sareak

Ekintza kolektiboaren antolaketak sorkuntza kulturalen, memoria historikoan eta tradizio politikoetan du oinarria, gizarte mugimenduen antolaketa identitate iturri indartsu moduan agertzen den heinean (Della Porta & Diani, 2011). Baina Tarrow-k gogoratu zigun moduan, soilik antolaketaren alderdi formalak kontutan hartzen baditugu, ezingo ditugu antolakuntzaren aspektu aunitz ulertu. Antolakuntza formak atsekabeturik daudenen eta euren aurkarien arteko lehenengo interakziotik garatzen dira (Tarrow, 2012). Antolakundeak jarraikortasunarentzako oso garrantzitsuak izateaz gain identitate sorketan lagungarriak izan ohi dira. Irakidura kolektibo momentuetan, mugimendu batean gogo bizia pizten denean eta parte hartzeko joera handitzen denean, jendea eta errekursoak mobilizatzea errazagoa da (Della Porta & Diani, 2011).

Gizarte mugimenduen egituraketari dagokionez, Dieter Rucht-ek ere bere ekarpena egin zuen, hain zuzen ere Aukera Politikoen Egituraren ikerketetan, baliabideen mobilizazioa aztertzerako orduan

⁷ Tilly-k antzeko banaketa bat egin zuen: (“onartuak, preskribatuak, debekatuak”). Tilly, C. (2007): *Violencia colectiva*. Barcelona: Hacer.

⁸ Sailkapen hau sakontzeko Diani eta Della Portaren esku-liburuan.

egituraketaren oinarria ez dela kontutan hartzen zioen, modu berean, baliabideen mobilizazioaren inguruko analisietan gizarte mugimendu antolatuak jarduten duten ingurune politiko zabalak baztertu dira (Rucht, 1999). Garrantzitsu ikusten zuen mugimenduen egiturengan kanpo aukerek duten inpaktua eta, mobilizazio modua determinatzeko duten ahalmena ikertzea.

Hortaz mobilizazio egiturak ezin dira bere ingurunetik at ikertu, honek, Rucht-i jarriki, egitura zehatz baten sorkuntza mugatu edo lagungarri egiten duten kanpoko faktoreetan zentratzera eramaten gaitu: baliabideak, protesta ekintzen materializazioa... Honi testuinguruaren egitura deitu zion Rucht-ek, mugimendu baten testuinguruaren egitura global honek hiru dimentsio dituela azalduz: testuinguru kulturala, politikoa eta soziala (1999).

Rucht-ek *gizarte mugimendua* bi osagai motez osatua dagoela argudiatu zuen, alde batetik ekintza bultzatzeko protesta ekintzak mobilizatuko dituzten antolakunde eta talde sareak; eta bestetik, protesta ekintzetan parte hartzen duten indibiduoak. *Mobilizazio prozesua* mugimenduen egiturak sortzeko prozesuari eta protesta ekintzen egikaritzeari deitu zion, azken hauek mugimenduaren produktuan bihurtzen direlarik. *Mugimenduaren Egitura*, mugimendu batek dituen errekursoak bateratzea eta erabiltzea ahalbideratzen duten antolakuntzaren oinarriari eta mekanismoei deritza. Egitura honek bestelako egitasmo batzuk izan ditzake ere, informazioaren birbanaketa, identitate kolektiboaren garapena...

Modu ez oso ezberdinean Hans Peter Kriesi-k gizarte mugimenduen antolakundeak mobilizazio egituren oinarri nahitaezkoa direla zioen, hala ere gizarte mugimenduak mobilizazio egituren osagai bakarrak ez dira, bestelako osagaiak dituztela argudiatu zuen: harreman sareak, sare informalak, mugimenduen komunitateak, baita mugimenduaren alde egiten duten antolakunde formalak ere (Kriesi, 1999). Argibide hau eta gero, mobilizazio egituren alderdi formalak bereizi zituen: gizarte mugimendu antolatuak (MSO –gaztelerazko siglak–), bermerako antolakundeak, mugimenduen asoziazioak eta, alderdiak eta interes taldeak⁹.

Logika hau jarraituz, Tarrow-k (2012) sare interpersonalak mugimenduaren oinarriko egitura direla azaldu zigun. Hauek mugimenduaren identitateak sortzeko eta sozializatzeko baliagarri izateaz gain, gai baten inguruan indibiduoak parte hartzeko aukera ematen dute ere. Eskala handiago batean, gizarte mugimenduen ekintza sarean antolatzen da, oro har, modernizazioetako mugimenduetan antolatzeko modu hau presente egon bazen ere, geroz eta pisu handiagoa duen antolamendua da. Sarean antolatutako mugimendua bestelako koordinazio moduak hobesten ditu: helburu eta estrategien malgutasuna, integrazio horizontala, elkar eragin anitzeko mailak...

⁹ Hauen inguruko informazio gehiago: **Kriesi, H. P.** (1999). La estructura organizacional de los nuevos movimientos sociales en su contexto político. Honako liburuan: *Los movimientos sociales: perspectivas comparadas*. D. McAdam, J. D. McCarthy, & M. N. Zald. (or. 221-261). Madrid: Istmo.

d. Mugimenduaren Ekintza Kolektiboaren Marko Diskurtsiboak

Ekintza politiko kolektiboari markoak sortzen dizkio mugimenduak, markoak errealitatearen interpretaziorako eskema bezala ulertuta. Ikuspegi kulturalaz jabetu diren gizarte mugimenduetako ikerlariak, ekintza kolektiboak duen osagai kulturalaren garrantziaz ohartu dira: markogintza, identitateen sorkuntza eta emozioa (Tarrow, 2012). Hauek guztiak garrantzitsuak dira gizarte mugimenduaren parte hartzaileen artean elkartasuna bultzatzeko eta ekintzan parte hartzera animatzeko.

Marko arrakastatsuak produkzio kultural modu anitzetatik sortzen dira, baina horretarako indibiduen eta gizarte mugimenduen antolakuntzaren orientazio interpretatiboen arteko konexioa beharrezkoa da. Horrela interes, balore, eta sinesmen indibidualen multzoa, antolakuntzaren ideologiaren, helburuen eta ekintzen osagarriak izan daitezten (Della Porta & Diani, 2011). Zentzu honetan autore hauen esanetan, mobilizazio mezuak indibiduen osagai kulturalekin integratzen direnean, ekintza kolektiboa egikarituko da

Tarrow-k bildu zuen moduan, markogintza, aktore sozialek, komunikabideek eta gizarte bateko kideek errealitatea eta gauzen egoera batera interpretatu eta definitzen duten prozesuari deitzen zaio (Klandermans, 1997 ekarrita). Ekintza kolektiborako markoek, onargarriztat edota dohakabetzat hartzen den egoera sozial bat, larri edo injustu bezala birdefinitzen duten areagotze mekanismoen antzera funtzionatzen dute (Tarrow-en liburuan, -2004- Snow eta Benford gogoratuta -1992-).

Markogintza prozesuarekin gaudela, Tarrow-en ekarpenean Gorffman-ek indibiduoak errealitatea birsortzen duen modua bezala definitu bazuen ere; beste autore batzuk egiten duten interpretazioa aintzakotzat hartu zuen Tarrow-k, irain zehatzak ekintza kolektiboaren markoetan bihurtzen dituzten mugimenduak bezala definitu baitzituen markogintza prozesuak, gizarte mugimenduen aldarrikapenak duin bihurtzen dituztelarik (Tarrow, 2012).

Markoekin bukatzeko, Klandermans-ek eta Goslinga-k (1999) bildu zuten moduan, Gamisonen (1992) markoen fenomenoaren inguruan egin zuen ekarpenari aipamen egingo diogu. Honek zioen potentzial mobilizatzailearen elementu garrantzitsuak zirela injustizia markoak, identitate markoak eta ekintza markoak marraztea. Marko hauek elkar eragin interpersonalean garatzen dira, eta bertan iturri ezberdinetako informazioak kontutan hartzen dituzte.

B. Agenda Klasikoak jaso dituen Kritikak¹⁰

Agenda klasikoak barnebiltzen duen bitartekoen mobilizazioa eta prozesu politikoak paradigma nagusiak izan dira denbora luzez. Perspektiba estruktural hauen bitartez zapaldutako gizarte mugimenduek errekonozimendua eta boteretzeko gaitasuna lortu zuten. Baina Jasperrek (2012) hutsune "larri" bat aurkitu zien, hain zuzen ere kulturaren kontzepzioa kanpoan utzi baitzuten. Kritikak

¹⁰ Lan honen mugak kontutan izanik, laburki kritiketako batzuk aipatuko ditugu soilik.

kritika, 1996an¹¹ agenda klasikoaren defendatzaileek paradigma osatuko duen ikuspuntua landuz, aurreko atalean ikusi dugun bezala, sintesirako proposamen bat garatu zuten.

Hala ere, kritikek jarraitu zuten, kritika gauzatu zutenen ustetan hurbilketa teoriko honek alde batera uzten baitzituen desioak, aktoreen ikuspuntuak, aukeraketak... Parte hartzaileak ez ziren aintzakotzat hartzen, hor zeuden, aukera politikoen leihatila noiz irekiko den zain (Jasper, 2012). Jasperrek bere testuan gizarte mugimenduen perspektiba hau kritikatzeko burutu ziren hainbat ikerketa enpiriko azaldu zituen, izan ere hauek agerian utzi baitzuten paradigma honek zituen hutsuneak, besteak beste -Goodwin, 2012- eta -Jasper eta Young, 2007-.¹²

Kritika hauek ezegonkortasuna suposatu zuten paradigmen barnean. Hortaz, 1998an Tarrow-ek bere ikerketan berrikuntza bat sartu zuen: aukera politikoa aipatzen zuen bakoitzean, "mehatxuak"-en kontzeptua sartu zuen, aukerak eta mehatxu politikoa.

Hurbilpen teorikoaren atalean aipatu dugun liburuari berriro erreferentzia eginez, Cohen eta Aratok (2001) ere kritika egin zioten gizarte mugimenduen aurreko perspektibari. Hauen ustez gizarte mugimenduen ikerketak bitartekoen mobilizazioen teoriak duen egituren langa gainditu behar du. Hau da, aktore kolektiboek boterearengatik borrokatzen dute, sistemaren antolaketa politikoa nahiz gizarte zibilaren barruan espazio demokratikoa sortzeko asmoz. Hortaz gizarte mugimenduen ikerketan murgiltzen den teoriarari gizarte zibila ikerketa objektua izateaz gain, ekintza kolektiboaren eremua [subjektua, hein handi batean] ere badela kontutan izan behar du (Cohen & Arato, 2001: 572).

C. Agenda Klasikoari egin zaizkion ekarpenak. Mekanismoak eta dinamikak

90. hamarkada bukaerarako McAdam-ek, Tilly-ek eta Tarrow-k (MTT) agenda klasikoaren perspektibari egin zitzaizkion kritikak bultzaturik, agenda klasikoa bera perspektiba dinamikoago eta kulturalago batetik birpentsatu zuten. Horren emaitza *Dynamic of Contention* (2001) liburua da. Ekarpene berri honen bitartez, estrukturalismo berari egin zioten kritika. Politika liskartsuaren analisirako agenda klasikoaren lau gabezi azpimarratu zituzten: 1) Harreman estatikoetan oinarritzen da, dinamikoagoetan baino. 2) Gizarte mugimendu indibidualetan zentratzean hobeto funtzionatzen du. 3) Aukeretan enfasi gehiago jartzen dute mehatxuetan baino. Konfiantza gehiago jartze dute antolakuntza errekursoetan, antolakuntza defizitean baino. 4) Borrokaren sorreran fokatzen dute ikerketa (McAdam, Tarrow, & Tilly, 2005).

Gabezi hauek kontutan izanda agenda klasikoari ekarpen batzuk egitea egokia iruditu zitzaion. MTT-entzat gizarte mugimenduen teoriaren baitan aldaketa sozialek garrantzia zuten, batez ere agenda

¹¹ McAdam, D., McCarthy, J. D., & Zald, M. N. (1999). Oportunidades, estructuras de movilización y procesos enmarcadores: hacia una perspectiva sintética y comparada de los movimientos sociales. D. McAdam, J. D. McCarthy, & M. N. Zald en, *Movimientos sociales : perspectivas comparadas: oportunidades políticas, estructuras de movilización y marcos interpretativos culturales* (or. 21-46). Madrid: Istmo.

¹² Jasperren testuan ikerketa hauen nondik norakoak azaltzen dira: Jasper, J. (2012).eko urtarrila/apirilak). ¿De la estructura a la acción? La teoría de los movimientos sociales después de los grandes paradigmas. *Sociología*, 27(75), 7-48.

klasikoaren lau ezaugarriak elkar eraginean daudenean. MTT-k aldagaiak erlazionatu zituzten, eta mekanismo dinamikoak eta beste aktore esanguratsuekin dituzten harremanak identifikatu zituzten ere (McAdam, Tarrow, & Tilly, 2005: 47).

Irudia 3: Agenda klasikoari ekarpen berriak. McAdam, Tarrow, Tilly, (2005: 19)



Iturria: (McAdam, Tarrow, & Tilly, 2005)


Dynamic of Contention (2001) liburuaren helburua aurreko irudian marraztu zituzten geziak identifikatzea eta definitzea izan zen. Aukera eta mehatxuak faktore estruktural objektibo bezala aztertu beharrean, esleipenari lotua dagoen faktore bezala begietsi zuten. Aukera politikoek ez dute *de facto* mobilizazioa piztuko potentzia desafiatzaileentzako agerikoak ez badira.

Beste alde batetik, ia da existitzen diren mobilizatorako egiturak kontutan hartu beharrean, taldeek mobilizatorako berenganatzen dituztenak aintzakotzat izan zituzten. Jabetze soziala beste mekanismo batean bihurtu zuten, askotan antolakuntzaren defizitak dituzten herrialdeei lagungarria izango zitzaiena.

Enmarkazio prozesua liderren esku dagoen mekanismoa izan ordez, enmarkazioaren ikuspegia zabaldu zuten, desafiatzaileen, aurkarien, Estatuaren elementuen artean ematen diren liskarren egituraketa interaktiboa barnebiltzeko. Mobilizazio bat sortzen den testuinguru oso garrantzitsua da bere aldarrikapenak marko baten barruan sartzeko. Testuinguruarekin batera errekurtso kulturalak enmarkazio prozesu hauei forma ematen zietela baieztatzen zuten autoreek. Desafiatzaileek aurrera eramaten dituzten ekintza kolektiboaren bilduma mugatu ordez, ekintza kolektibo berritzailean zentratu ziren (alde batekoetan zein bestekoetan).

Eta azkenik, egora liskartsu baten baitan pertsonak mobilizaziotik ekintzara igarotzen diren hasierako une horretan oinarritu baino, mobilizazio prozesuan orokorrean zentratu ziren eta liskarraren genesisia zehaztu beharreko faktore bat bezala definitu zuten (Ibídem, 2005: 48). Honek guztiak agenda klasiko estatiko batetik, elkarreragileak diren mekanismoak identifikatzea ahalbideratu zien. Transformazio hauek mobilizazioaren modelo errebisatua definitzen dute. Hurrengo irudiaren bitartez, politika liskartsua analizatzeko marko probisional, dinamikoa eta elkarreraginezkoa azaldu zuten.

Irudia 4: Politika liskartsuaren mobilizazioa aztertzeko marko dinamikoa eta elkarreragilea. MTT (2005: 49)



Iturria: (McAdam, Tarrow, & Tilly, 2005)

Aukerak eta mehatxuak ez dira kategorio objektiboak, baizik eta agenda klasikoa mugatzen duten esleipen kolektiboaren menpe daude. Hauen baitan beste aktore batzuk koka daitezke, hala nola antolakunde formaletakoak, sistema politikoaren kideak, beste desafiatzaileak... Mobilizaziorako egiturak aurretik existitu daitezke, edo aldaketa sozialarekin batera sortu daitezke. Beti ere desafiatzaileek bere egin behar dituzte, borrokarako esparrua egokitzen zaien heinean. Ekintza berritzaileak atentziora deitzen dute, elkarreragin esparruan oztopo berriak suertatzen baitituzte, eta ziurgabetasuna sortzea baitute helburu. Azken batean mobilizazioa liskar politikoaren baitan kokatzen da eta elkarreraginaren funtzio bezala ulertu daiteke (McAdam, Tarrow, & Tilly, 2005: 49).

VI. GIZARTE MUGIMENDUEN IKERKETAN EGIN DIREN EKARPEN BERRIAK

A. Ikuspegi makro eta mikroak uztartuz

Aurretik ikusitako paradigmak eta gizarte mugimenduen analisisan egindako teorizazioak atzean geratu zirela uste zuten autore batzuek, horien artean James M. Jasperrek (2012). Honek zehazki zioen gaur egungo teorialariek aurreko eskolen ideiak sintetizatu eta beste dimentsio batzuk gehitu behar zituztela. Bere testuan azaldu zuen moduan, 20. hamarkadan gizarte mugimenduen teoriak historiarekin eta gizartearekin hertsiki lotuak zeuden, 70. hamarkadetako ikerketetan ekintza kolektiboa eta erresistentzia bezalako kontzeptuak agertzen hasi ziren, gizarte mugimenduek kontzepzio positibo eta baikorra hartzen zutelarik.

Gizarte mugimenduen paradigmatan lehenak, berak esan zuen moduan, makrosoziologiatik garatu ziren ikuspegiak izan ziren, alde batetik errekurtsoen mobilizazioa, eta bestetik, gizarte mugimenduek Estatuarekin dituzten interakzioak aztertzen dituenak. Maila makrosoziala utzi gabe baina irudi kulturalistago bat landuz gizarte programatua edo postindustriala aztertu zuen gizarte mugimenduen paradigma daukagu, Europako mugimenduetan zentratu zena. Eta azkenik, maila mikrosoziala baina zeharo arrazionala kontutan izan zuen paradigmak mikroekonomiatik asko edan zuen.

Jasperren hitzetan maila estrukturala parentesi artean mantendu beharko litzateke, ekintza politiko eta sozialen aspektu mikroa nabarmentzeko; oroitaraziz ekintza bitartekoek, helburuek, aktoreak eta eszenatokiak bezain besteko garrantzia dutela. Gauza txikietatik hasi beharko litzateke analisiaren bidea, gorantz eraikiz, gauza handietara (Jasper, 2012).

Azken batean, Jasperrek ekarri zuen berrikuntza maila mikroan baina aspektu kulturalak nabarmentzen dituzten kontzepzioak izan ziren. Izan ere, bere ustetan pendulu intelektuala paradigma estruktural nagusietatik aldendu behar da eta agentziara, kulturara, esanahira, emoziora eta moralitatera bueltatu behar da. Teoria kulturalen paradigma estrukturalarekin puskatzeko lehenengo saiakerak egin zituzten autoreak daude, horien artean Snow-ek, Benford (1986) ditugu, *framing proces*-ak proposatu zituzten ekintzaren esanahia azaltzeko. Melucciren (1996) identitate kolektiboa izan zen 90. hamarkadan emankorra izan zen beste teorizazio bat. Baina hala ere ez zuten Jasperrek garrantzitsutzat zuena aipatu, hauek maila estrukturalan kokatu baitziren, maila mikroa landu gabe utziz.

Taula 1: Orientazio teoriko nagusiak

	GIZA EKINTZAREN LEHENENGO IRUDI INPLIZITUA	
FOKATZE MAILA	MATERIALISTA	KULTURALISTA
MAKROSOZIALA	<u>Mobilizazioa eta aukera politikoa</u> <i>McTeern, Zald, McCarthy,...</i>	<u>Gizarte programatua</u> <i>Touraine, Melucci, Castells,...</i>
MIKROSOZIALA	<u>Aukera arrazionalaren teoria (jokoen teoria)</u> <i>Olson, Coleman, Opp...</i>	<u>Pragmatismoa</u> <u>Feminismoa eta bira homosexuala</u> <u>CHAT</u> <i>Jasper, Taylor, Polleta, ...</i>

Iturria: Jasper (2012)

B. Praxi kognitiboa¹³

Azken urteetan kulturarekiko interesa oso agerikoa izan da gizarte mugimenduen teorialarien artean, esanahiaren egituraketa sinbolikoa bezala ulertuta. Kulturarekiko interes hau hainbat autore filosofikoekin erlaziona genezake, bira linguistikoren esparruan, posta-estruturalismoan... oinarritzen direnekin. Gizarte mugimenduen esparruan interes hau piztu zutenak bi paradigma tradizionalatik edaten duten (europarra eta amerikarra) teoriak dira. Gizarte Mugimendu Berrien teoriaren paradigmak ez bezala, bitartekoen mobilizazioak eta bere baitan kokatzen diren korranteak gizarte mugimenduak kanpotik ikertzen dituzte, estrategia kolektiboaren ikerketa objektuak bezala. Azken batean helburua gizarte mugimenduen porrota edo garaipena aztertzea izanik. Boterea eta aldaketa soziala, esanahiekin alderatuta, azken hauek garrantzi eta eragin gutxikoak bezala ulertzen dituzte. Esanahi hauek identitate kolektiboaren osaketan, edota gizarte horren kulturen egin ahal dituzten ekarpenak ez dituzte aintzakotzat hartzen (Eyerman, 1998). "Ez dute kontutan hartu esanahiek, egoera definitzeko saiakeran, aldaketa sozialaren eta boterearen funtsezko aspektu bat gara dezaketela" (Ibídem, 1998: 140).

Ron Eyerman-ek Ibarra eta Tejerinaren liburuan egindako testuaren hasieran ondorio horiek atera baino lehen, 1991ean Andrew Jamison-ekin argitaratutako liburuan *A Social Movements: A Cognitive Approach* (1991), gizarte mugimenduen fokatze kognitiboa garatu zuten. Bertan Frankfurt-eko Eskolak garatutako teoria kritikoaren ideian oinarrituz, gizarte mugimenduen hurbilpen kognitibo bat planteatu zuten. Euren ustetan gizarte mugimenduak identitate sozialak sortzeko pertsonak erabiltzen dituzten aktibitateak, *praxi kognitiboaren* prozesuak direla. Gizarte mugimenduak denboran kokatzen diren espazio publiko bezala ulertu baitzituzten eta hauek gizarteari ideiez, identitateez, idealez hornitzeko

¹³ Praxi kognitiboaren kontzeptua honako testuan garatu zen. **Eyerman, R., & Jamison, A.** (1991). *Social Movements. A Cognitive approach*. Cambridge: Polity Press.
Hurrengo lerroetan garatutako ideiak testu honetatik ekarriak izan dira.

gaitasuna baitute (Riechman & Fernández Buey, 1995). Azken batean, gizarte mugimenduak ikasketa prozesutzat hartu genitzake, hauen esanetan oinarrituz, gizarte mugimenduek gizartea egituratzeko gaitasunarekin interakzio esparru batera eramaten baikaituzte.

Praxi kognitiboaren bi autore hauek batez ere ikerlari amerikarrak kritikatu zituzten, hain zuzen ere hauek euren ikerketatik ezagutzaren eta identitatearen aspektuak alboratu baitzituzten, objektu enpirikoak ez izanagatik. Eyermanek eta Jamisonek uste zuten paradigma horiek ez diotela gizarte mugimenduen garrantzi kognitiboari ekarpenik egiten. Hortaz, hauen helburua gizarte mugimenduak interakzio komunikatiboaren¹⁴ ikuspuntutik lantzea izan zen, praxi kognitiboa kontutan hartzeko hain zuzen ere (Eyerman & Jamison, 1991).

Antolaketan eta aukera politikoetan zentratzen den ikerketa esparruak gizarte mugimenduen formakuntzaren instrumentalitateaz eta mugimenduaren estrategian oinarritzen da. Itsasoaren beste aldean kokatzen den ikerketa eremuak aldiz, identitatearen formakuntza du hizpide, garaiak ematen dituen identitate modu berriek gizartean mugimendu “berriak” sortu baitituzte. Aipatu ditugun sintesi lanek gizarte mugimenduen bi analisi korronte nagusien integrazioan indarrak jarri arren, ez dute paradigma bakar bat garatu, edo analisi modu bat. Honen harira, Jamisonek eta Eyermanek (1991) gizarte mugimenduen soziologian dihardutenek bi paradigmen arteko jauzian geratzen dena teorizatzeke gai ez direla argudiatu zuten, dimentsio kognitiboaz ahaztu baitziren. Alde batetik, errekurtsoen mobilizazioaren ikertzaileek gizarte mugimenduak enpirikoki aztertu zituzten, eta bestetik, Gizarte Mugimendu Berrien teorialariek aktoreen ikuspuntutik definitu zituzten mugimenduak. Praxi kognitiboa datu enpirikoetara murriztu ezin daitekeenez, paradigma klasikoek euren ikerketatik alboratu zuten, eta gizarte mugimenduen interesak antolakuntzaren programen posizio ideologikoetan transformatzen direla zioten.

Beraz Eyerman eta Jamisonek honela definitu zuten praxi kognitiboa: gizarte mugimenduen identitate zentrala eskaintzen duen elementu bat (1991: 44), mugimendu jakin baten inguruan muga batzuk marraztea ahalbideratzen duen egitura sakon bat; denborarekin garatzen dena eta mugimenduen egoera eta potentziala aztertzeko balio duena. Praxi kognitiboak ez du gizarte mugimenduen garrantzi sinboliko edo adierazpenekoa bilatzen, ez du ezarritiko boterea desafiatzen ere ez, egitura sozialeko osagai bat bezala ulertzen da eta giza ezagupenaren elementu erabakigarria da (1991: 48). Gizarte mugimenduak praxi kognitiboaren prozesu bezala ulertzeak ezagupenaren sorkuntza prozesu kolektiboa bezala ikustea ahalbideratzen du, ezagupenaren aurkikuntza prozesu indibidualetik aparte. Gizarte mugimenduak proiektu historikoen artikulazioan inplikatzeko den praxi kognitiboaz osatuak daude, hortaz praxi kognitiboak mugimendu bat beste batengandik bereiztea ahalbideratzen du, gizarte mugimendua prozesu sozial zabal baterako esanahiaz hornitzen duen bitartean.

Gizarte mugimenduak praxi kognitiboaren prozesu bezala ulertuta esan genezake hauek ezagupenaren ekoizleak direla, eta ezagupenaren ekoizpen prozesua bera, prozesu kolektibo bezala ikusi beharko litzatekeela. Autore hauen definizioaren arabera, gizarte mugimenduak eremu kognitibo

¹⁴ Kontutan izan bi paradigma klasikoaren sintetizazioaren atalean Cohenek bere testura ekartzen duen Habermasen “ekintza komunikatiboaren teoria”.

bat dira, esanahien eta ekintzen interakzio dinamiko baten bitartez espazio kontzeptual bat osatzen dutenak, bertan gizarte mugimenduen identitatea sortzen delarik (1993: 55).

Autore hauek gizarte mugimenduak ziklo baten bitartez garatzen direla onartu zuten, hauen sortze prozesuan hainbat aldagaien presentzia ezin bestekoa izanik. Mugimendu bat koiuntura historiko baten trantsizio moduan ikusi zuten. Gizarte mugimendu bat sortuko da aukera politikoak ikusgai daudenean, arazo sozial baten testuinguruan, komunikazio marko batean, eta arazoa artikulatzeko eta ezagupenak hedatzeko aukera dagoenean. Modu berdinean, C. Wright Mills-en ekarpenak hartu zituzten, gizarte mugimenduak sortuko direla norbanakoek mugimenduaren parte izateko gai direnean, arazo pribatuak arazo publikoan transformatzeko gai direnean, eta ondorio bezala identitate kolektiboa sortzen dutenean ondorioztatzeko (1991. 56).

Gizarte mugimenduak ezagupenaren ekoizle bezala errekonozitzeko oztopo nagusienetako bat horiei erreferentzia egiteko erabili ohi diren antolakuntza, egitura, eta antzeko kontzeptuak dira. Gizarte mugimenduak fenomeno enpirikoetara mugatuak daudela zioten Eyerman-ek eta Jamisonek, baina honi antolakundeek mugimenduaren esanahia garraiatzen dutela gehitu zioten, beraz zentzu honetan baieztatu dezakegu esanahia edo identitate zentrala mugimenduak sortzen duen espazio kognitiboa dela.

Laburbilduz, Eyerman-ek eta Jamisonek gizarte mugimenduen arrakastarekin loturik zioten mugimendu baten arrakasta, kultura politikoaren baitan dauden bitartekoak mobilizatzeko ahalmenaren eta aukeren egiturak aprobetxatzearen ahalmenean dagoela. Zentzu politiko zabalago batean gizarte mugimenduen arrakasta bere ezagupenaren ekoizpenaren hedapen efektibo baten menpe dago, honek ematen baitio mugimenduaren identitatea artikulatzeko denbora eta espazioa.

VII. EZTABAIDA TEORIKOA. Gizarte mugimenduen paradigmen uztarketa: *Ideologikoki Egituratutako Ekintza*

Gizarte mugimenduen inguruan marraztu dugun ibilbidea kontutan izanik, hurrengo atalean ibilbide horrek utzi dituen hutsune batzuk betetzen saiatuko gara. Izan ere, hasieran aipatu dugunari jarraiki, paradigma klasikoek ikusmira batetik, bakoitzak beretik, gizarte mugimenduak azaltzen saiatu ziren. Hauekin batera, autore jakin batzuk paradigma horien arteko integrazio saiakerak burutu bazituzten ere, oraindik perspektiba bateratu baten faltan dago gizarte mugimenduen teoria.

Historikoki ekintza kolektiboan kulturak betetzen zuen papera ideologiaren azalpenetara mugatzen zen. Snow-k, entitate sozial edo mugimendu bati loturik dauden helburu, balore, sinesmen, egonkor eta koherente batzuen multzo bezala identifikatu zuen ideologia, honek akordio eta baldintza sozial batzuen aurrean babesak edo desafioa planteatzen du (Snow D. , 2004: 394). Baina aurreko atalean azaleratzen saiatu garen moduan, azken urteotako eztabaida identitate kolektiboen osaketan, ideologiaren pisua interpretazioak egitean eta kulturak parte hartzeko moduetan duen eraginean kokatzen da. Eztabaida honek ideologiaren ezaugarriak eta betetzen duen papera birpentsatzea ekarri du.

1994an Daltonek gizarte mugimenduen ikerketaren ikuspegi bateratu bat argitara eramaten saiatu zen, Europako gizarte mugimendu ekologisten ikerketa batean fokatzeko ezberdinen perspektiba bateratu baten kontzeptua azalduz. Daltonek ikerketa honetan perspektiba estrukturalistek ideologiaren analisia falta zitzaizela ohartuta, gizarte mugimendu batean eragina duten faktore kulturalistagoak barnebiltzen saiatu zen. Geroago Zald-ek Daltonek ekarritako kontzeptualizazioa sakontzen saiatu zen, berekin batera kritika batzuk jaso zituen arren¹⁵. Ikus ditzagun autore hauen ekarpenak:

PERSPEKTIBA BATERATU BATEN BEHARRA

Esan dugun bezala, Daltonek gizarte mugimenduen inguruko teorian integrazio bat behar zela plazaratu zuen, ia da garatuta dauden teoria klasikoak gaur egungo gizartean zeuden mugimenduak aztertzeko eskasak baitirela uste baitzuen. Alde batetik, errekurtsoen mobilizazioen teoriak gizarte mugimendu bat errekurtsok mobilizatzen dituen antolakundeengandik existitzen dela dio, baita ikuspegi honekin harremanurik ere, aukera arrazionalaren teoriak talde politiko hauen ikuspegi ekonomikoagoa azaltzen du. Biak hala biak gizarte mugimenduen antolakundeen portaera azaltzen duen marko zabal bat ematen digute. Oro har, ikuspegi honen arabera (errekurtsoen mobilizazioa / portaera politikoa) gizarte mugimendu baten sorrera, errekurtsok nahikoen presentziaren eta enpresari esperientziaren menpe dago. Gizarte mugimenduen ikuspegi honek mobilizatzeko errekurtsok aukera politikoen egiturearekin konbinatzen direla baieztatzen du.

¹⁵ *Mobilization. An International Journal* aldizkarian ateratako *Ideologikoki Egituratutako Ekintza*-ren (*Ideologically Structured Action –ISA-*) inguruko eztabaida (*Mobilization Forum*). (2000, vol.:5).

Errekurtsoen beharrek eta gizarte mugimenduaren antolakunde baten aukera politikoek gizarte mugimendu horren egiturarengan, taktikengan, aliantza politikoen patrioiengan eta helburuengan eragina dute. Modelo honek ikuspegi integratu bat ematen digu taldearen antolaketari dagokionez, antolakundearen garapenari dagokionez, hauen portaerari dagokionez, eta taktika politikoen erabakiarri dagokionez batez ere.

Aurreko atalean ikusi dugunez, errekurtsoen mobilizazioaren teoriak, gizarte mugimenduak eta euren antolakundeak aztertzeko asko lagundu bazuen ere, gizarte mugimendu "berrien" (berritzaileen) sorrerarekin, euren gizarte mugimenduak azaltzeko perspektibak goia jo zuen. Gizarte mugimendu berri hauek, ondasun kolektiboez arduratzen baitira, bere horretan gizartea, kultura eta bizi kalitatea barnebiltzen direlarik. Hala ere Daltonek azpimarratu zuen gizarte mugimendu berrien markoa askotan gaizki definitua edota zehaztugabea egoten dela.

Baina hau guztia kontutan izanik eta hasieran aipatutakoa gogoratu, Daltonek burutu zuen gizarte mugimendu ekologisten ikerketan perspektiba bateratu bat ematen saiatu zen. Gizarte mugimenduen bi ikuspegi hauek gaur egungo gizarte industrializatuetakoko mugimenduak azaltzen saiatzen diren arren, ikuspegietako bakar batek ere ez du gizarte mugimenduen azalpen osoa ematen, hortaz modelo hauen sintesi bat garatzea beharrezkotzat jo zuen Dalton-ek.

Autore honek burutu zuen ikerketa honen ezaugarririk garrantzitsuena gizarte mugimendu baten ideologiak eta identitate kolektiboak bere egituretan eragina duela azaltzea zen. Gizarte mugimenduen ikerlariak sinesmenen eta balore politikoen kontzepzioak euren ikerketetan txertatzen saiatu izan diren arren, eta horien inguruko eztabaidak aurrera eramaten saiatu izan diren arren, ez dituzte euren analisietan sartu. Oinarrian dauden aktibisten balore politikoak eta antolakunde baten historiak gizarte mugimendu baten identitate kolektiboa definitzen dutela zioen Daltonek (1994), aldi berean beste aktibistak erakartzeko oinarrian bihurtzen direlarik. Marko bateratu honi **Ideologikoki Egituratutako Ekintza** –IEE–¹⁶ deitu zion. Daltonek proposatutako marko honek, antolakunde politiko orok errekurtsoen mobilizazioaren teoriaren baitan dauden mugak errekonozitzen dituela suposatzen du (Dalton, 1994: 11-12).

Talde baten ideologiak talde horrek mobilizatu ditzakeen errekurtsoekiko berehalako ondorioak izan behar ditu, hau da, ideologiak eta identitateak taldea antolatzeke egituraren eragina izan behar dute. Daltonek jarri zituen adibideak ekarrita, antolakundeek finantziazioa behar dutenean, errekurtso finantzarioaren bilaketa talde horren ideologiak eta identitateak gidatuko dute. Antolakunde politiko baten ideologia eta identitatea antolakundearentzako modelo bat baino askoz gehiago dira. Talde baten ideologiak, norbanako hiritar batena bezala, mundu politikoa interpretatzeko eta antolatzeke marko bat ematen du, eta funtsezko baloreak eta kanpoko ardurak definitzen ditu. Ideologiak eta antolakundeak beste kide batzuk mobilizatzen dituzte jarraitzaile izan daitezkeen horiengana joz.

Dalton-ek alde batetik, Bert Klandermans-en hitzak (1988) ekarriz zioen, gizarte mugimendu baten antolakundeak gertakari politikoen interpretazio espezifikoak egiten dituela, talde horren orientazioa

¹⁶ Ideologically Structured Action (ISA)

islatzeko eta jarraitzaile berriak erakartzeko asmoz. Honekin batera Daltonek zioen talde baten ideologiak, ekintza politikoaren fokua norantz jo behar duen zehaztea ahalbideratzen duela. Snow eta Benford-ek (1988) azken ideia hau diagnostiko koadro bezala identifikatu zuten. Bestetik, ideologia batek talde baten helburu politiko garrantzitsuak zeintzuk diren zehaztu zituen, eta helburuak horiek definitu zituen ere. Gizarte mugimendu baten antolakundearen identitatea definitzen denean, identitate horrek taktika politikoaren aukeraketan du eragina, Snow eta Benfordek honi pronostiko koadroa deitu zioten. Hortaz esan dezakegu talde baten identitateak, alde batetik, egitura politikoak definitzen dituela, eta bestetik, identitateak desiratutako emaitzak lortzeko metodoa definitzen laguntzen duela.

Hau guztiarekin Dalton-ek esan nahi zuen egitura politikoak ez direla sistema politiko baten ezaugarri mugiezina. Errekurtsoen mobilizazioa, ikertzaile askok dioten bezala, antolakundearen posizio ideologikoaren arabera mugitzen da. Gizarte mugimendu baten identitatea hainbat atxikimen bilatzera zuzendua egon behar duela zioen Daltonek. Helburua ez du (bere ikerketaren helburua ez zen behintzat) talde edo mugimendu bakoitzaren korrante eta azpikorrante ideologiko guztiak aztertzea izan behar, aldiz; gizarte mugimenduen ikerlarion helburua, talde espezifikoek ekintza azaldu ahal izateko mugimendu baten korrante orokorrak ikuskatzea izan beharko luke.

Dalton-ek errekurtsuen mobilizazioaren teoriaren analisi estrukturalean ideologiaren integrazioa proposatu zuen, antolakunde politikoaren portaera zehaztuago bat emango baitigu. Honek ez du esan nahi errekurtsuen mobilizazioari ideologiaren aldagaia gehitu behar zaionik. Gizarte mugimendu baten antolakundearen helburu eta ekintzak azaltzeko, ideologiaren eta errekurtsuen mobilizazio indarren arteko interakzioa beharrezkoa da.

Portaera kolektiboaren lehen teoriariek ideologia, ekintza politiko irrazionala ahalbideratzen duen aldagaia zela ikusi zuten, hortaz lehen teoriarari hauek ez zuten ideologia euren ikerketetan kontutan hartu; bestetik, gaur egungo errekurtsuen mobilizazioaren teoriariek ideologia garrantzirik gabeko kontzeptio bat balitz bezala jardun zuten, aukera politikoaren egitura edota antolakuntza taktiketan aldaketak gertatzen direnean, hauek soilik errekurtsuen faktoreen eragina dutela argudiatuz. Baita gizarte mugimendu berriak ikertu dituzten ikerlariek ere ideologiaren presentzia modu deskribatzailean azaldu zuten, antolakundeengan suertatzen diren aldaketen jatorria faktore ideologikotan duten garrantzia aipatu gabe.

Hortaz Daltonek zioen taldeen portaeraren analisisetan ideologiak ez duela errekurtsuen mobilizazioaren azterketa baztertzeko, aldiz, biak ikerketaren osagarriak direla baieztatzen du (Dalton, 1994: 15). Antolakunde baten identitate ideologikoak helburuen aukerak bideratzen ditu, talde horren posizio ideologikoa kontutan izanik zein taktika erabili behar diren, eta mobilizatorako zein errekurtsu dauden eskuragarri zehaztuz. Horrela IEE-k antolakunde ezberdinen ekintzak ulertzea ahalbideratuko digu, gaur egungo gizarte industrializatuetan gizarte mugimendu hauen inplikazio sozial eta politikoa ulertzea ahalbideratuz.

IDEOLOGIKOKI EGITURATUTAKO EKINTZA –IEE– SAKONEAN

Ideologikoki Egituratutako Ekintzaren kontzeptioa ez zen Daltonen Europako gizarte mugimendu ekologisten ikerketan geratu, handik urte batzuetara Mayer N. Zald-ek gizarte mugimenduen ikerketarako agenda zabal bat beharrezkoa ikusita, IEE-aren kontzeptuan sakondu zuen (Zald, 2000a). Gizarte mugimenduen fokatzeko honekin bi helburu betetzen direla argudiatu baitzuen: alde batetik, gizarte mugimenduen oinarriko definizioan ekintzaren osagai kultural / kognitiboak txertatzea ahalbideratzen da. Bestetik, gizarte mugimenduen ikerketaren agendan ideologiaren sozializazioaren ikuspegi sakonago bat sartzea ahalbideratzen da. Alabaina, Zald-ek gizarte mugimenduen portaera Ideologikoki Egituratutako Ekintza bezala birdefinitzean gizarte mugimenduen analisiaren agenda zabaltzen dela argudiatu zuen.

Daltonen haritik, autore honek ere errekurtsoen mobilizazioak eta prozesu politikoen fokatzeko gizarte mugimenduen joera kulturalak ez zituztela kontutan hartu azaldu zuen. Paradigma hauek kezka kulturalen arduratzeko arazoak planteatzen zituzten, hortaz identitate ideologikoen gora-beherekin ez ziren arduratzen. Identitatearen inguruan eta kontzientzia ideologikoen inguruan agertu ziren gizarte mugimendu berriek agerian utzi zuten errekurtsoen mobilizazioaren eta portaera kolektiboaren teoriak mugimendu berritzaile hauek azaltzeko zailtasunak erakusten zituztela. Zald-ek dio Gizarte Mugimendu berrien Teoriak identitate kolektiboaren garatze prozesuak aztertze beharrez ohartu zela, eta gizarte modernoaren eraldaketaren eta identitate kolektiboaren harremanari bereziki arreta paratu behar zitzaioela.

Kulturek, diskurtsoek, ideologiek eta markoek, errekurtsoen mobilizazioaren eta portaera politikoen teoriaren ardura estrukturaletan, transbertsalki funtzionatzen duten ardura kognitibo / kulturalen multzoa sartzea ahalbideratzen dutela zioen Zald-ek (2000a: 3). Hala ere, David Snow-ek ekintza hauek errekurtsoen mobilizazioaren osagai bat gehiago bezala identifikatu zituen arren, teoria estrukturalen eta ideologiaren integrazioa nola gauzatu beharko lirakekeen eztabaida oraindik ere irekia dagoela zioen Zald-ek.

Autore honek artikulo honetan McAdam-ekin eta McCarthy-rekin egindako lana aipatu zuen, izan ere, sintesi saiakera hartan ardura kulturalak, enmarkazio prozesuekin eta aukera politikoen egiturekin batera aztertze modelo bat garatzen saiatu ziren. Hala ere, Zald-ek zioen kontzeptu horiek elkarrekin aztertzea ez dela modelo horien integrazio bat egitea. Honekin Zald-ek ez zuen paradigma garrantzitsu hauen erabateko bazterketa gauzatu nahi izan (errekurtsoen mobilizazioa, portaera politikoa), kontrara, gizarte mugimenduen ikerketaren ikusmiran aldaketa bat eragin nahi zuen. Beharrezkoa ikusi baitzuen, gizarte mugimenduen jarraitzaileen portaera Ideologikoki Egituratutako Ekintza bat bezala dela baieztatzea, eta horretan zentratu behar dugula ikerlariok teorizazioa eta ikerketa bera (Zald, 2000a: 3).

Ideologikoki Egituratutako portaera, sinesmen sistema ideologikoengandik gidatutako portaera dela argudiatu zuen Zald-ek (2000a: 4), portaera honek sistema soziala eta harreman sozialak defendatu edota erasotzen ditu. Ideologia horiek ia da garatutako sistemetan eta orokortutako zibilizazioetan agertu daitezke, edo zurrumba lokala duten sinesmen partekatu murriztuetan. Honekin Zald-ek beste

ideia bat garatu zuen, gizarte mugimenduen antolakuntzan posizio ideologiko koherenteak erakutsi diatezkeen arren, aktibista askok ez dute ideologia horrekiko konpromezu bera erakusten. Mugimenduaren fase ezberdinetan, ekintzaren oinarri ideologikoa koherentzia gutxiago edo esplizitate gutxiago erakusten baitu.

IEE ez da errekurtsoen mobilizazioaren eta portaera politikoaren teoriaren antitesia. Ideologikoki Egituratutako Ekintzaren funtzioa ez da sozializazioarena edota sustatzearena soilik, baita egoeren aurrean agertzen diren erreakzioen garatzaile funtzioa eduki dezake ere bai. IEE, errekurtsoen mobilizazioen eta portaera politikoaren teoriak aztertzen duten aukeraketa prozesuan eragina duten osagai kognitibo eta sinesmenen eraketa bezala ulertu behar dugu¹⁷ (Zald, 2000a: 4). Ideologia praktikan agertu eta garatzen baita. Horrela IEE-ren fokoa erabiltzeak, alde batetik egitura eta kulturaren arteko dualismoarekin apurtzea lortzen da, eta bestetik ekintza eta kulturaren integrazio bat bultatzen da.

Gizarte mugimenduen ikerketeten nukleoa ekintza mobilizatzailea izan da, batez ere ekintza protesta bezala ulertuta, hau da, errekurtsu ezberdinen mobilizazio miala ahalbideratzen duten prozesuak. Desadostasunaren taktika, partaideen mobilizazioen ondorioak / emaitzak (autoritatearekiko, iritzi publikoarekiko...). Soilik protesta moduak aztertzen baditugu (mekanismoak, protestaren antolaketa...) protestaren edukia alde batera uzteko arriskuan erortzen gara, hau da, erreklamazio motak, munduaren ikuskerak, propositazten diren alternatibak... Hauek mugimenduaren ideologiaren baitan kokatzen dira.

Zald-ek dio Roberta Garnerrek¹⁸ 1996an egin zuen ikerketa batean bezala, gizarte mugimenduen ideologiaren ikerketa bat egin daitekeela mobilizazioak, taktikak eta antolakundea aztertzeari utzi gabe. Zald-en hitzetan, Roberta Garnerrek egin zuena ideologia orokorrak eta gizarte mugimenduekin batera jaiotako ideologia konketuagoak (ekologismoa, feminismoa, faszismoa...) deskribatzea da. Analisisia ideologiaren eta markoen kapa ezberdinen banaketa kontutan hartzen bukatzen da, baita mugimendua osatzen duten taldeekin, indibiduoekin eta antolakundeekin ekintza bera harremantzen ere.

Nahiz eta sistemek errekurtsuak garatzeko ahalmena izan eta sistema politikoak mobilizatorako irekiak egon daitezkeen arren, mugimenduaren helburuak eta hauek garatu dezaketek ideologiak dira errekurtsu horien aldagarritasuna eta sistemaren irekitzea euren menpean dituzten gizarte mugimenduen osagaiak. Ideologiaren aspektuak egituren analisisirako parametro enpirikoen limitazioa bezala agertzen dira ia beti. Baina, mobilizazio egitura eta dinamikak testuinguru ideologiko finko batean aztertzen dira; denborarekin mugimendu baten alternatiba ideologikoak aldatzen badira, mobilizazio aukera eta egiturak aldatzen dira ere bai.

¹⁷ Gogoratu aurreko atalean praxi kognitiboari buruz esandakoak.


¹⁸ Roberta Garner (1996): *Contemporary Movements and Ideologies*. McGraw-Hill Publishers. 1997. *Fifty Years of Social Movement Theory: An Interpretation and Bibliography*. Scarecrow Press.

Ez dugu testu hau bibliografian sartu, Zald-ek bere testuan emandako azalpenetik ateratako informazioan oinarritu gara.

Zald-en ustetan, Daltonek bere ikerketan Europako talde ekologisten aniztasuna ulertzeko, Ideologikoki Egituratutako Ekintzarekin errekurtsoen mobilizazioaren fokatzea eta ideologiarekin garatzen den aukeraketen irizpideak uztartu daitezkeela frogatu zuen. Horretarako Zald-ek zioen ideologia bere status ohikotik, gizarte mugimenduen deskribatzaile funtziotik, mugimenduen agenden, taktiken eta emaitzen kausa elementu izatera igaro behar dela. Azken batean, bi autore hauek defendatuko zutena ez da parametro klasikoak eskaintzen dizkiguten marko teorikoak baztertzea, aldiz, fokatze hauen agenda modu adierazgarri batean zabaltzea. Daltonek azpimarratu zuen, gizarte mugimenduen antolakundeen aukera politikoak antzemateko eta aprobeitzeko kapazitatea, eta errekurtsioak lortzeko kapazitatea, liderraren mundu ikuskerarengandik baldintzatua daudela (Dalton, 1994). Zentzu honetan Zald-entzat garrantzitsua zen Daltonen premisa nabarmentzea, Ideologikoki Egituratutako Ekintza ikerketen erdian jartzeak mobilizazio prozesua ulertzea ahalbideratzen duela hain zuzen ere.

Ideologiak, gizarte mugimenduaren ekintzek parte hartzen duten prozesu askotan eragina duela ondorioztatu zuen Zald-ek. Mugimenduaren aliatuak aukeratzeko orduan, taktikaren zehaztapena garatzerako orduan... gizarte mugimendu baten ekintza, Ideologikoki Egituratutako Ekintza dela onartuz, oro har inplizitua izan dena esplizitu bihurtzen du; beti ere analisi kulturalaren eta *framing* prozesuaren arteko lotura bat kontutan eudukiz.

Irudia 4: Ideologikoki Egituratutako Ekintzaren azalpen grafikoa



IDEOLOGIKOKI EGITURATUTAKO EKINTZA BAI, BAINA GIZARTE MUGIMENDUEN SAREAK SORTZEKO

Zald-ek ireki zuen foku berri honek zer esana izan zuen aldizkari bereko zenbaki berdinean Mario Diani-k eta Bert Klandermans-ek idatzitako artikulu bitan. Lehenik Dianiren kritika konstruktiboa aztertuko dugu, berak horrela definitu baitzuen bere ekarpena (Diani, 2000). Honek, Zald-en lana erreflexiorako saiakera txiki bat zela zioen, eta bere iruzkinaren bitartez Zald-ek marraztu zuen esparruaren ikuspegi zabalago bat ematen saiatu zen.

Gizarte mugimenduen ikerketak bizi zuen geldialditik ateratzeko tresna kontzeptualak eraberritu eta faktore kulturalak analisisira eraman behar ditugula onartu zuen Diani-k. Zentzu honetan Zald-ek Ideologikoki Egituratutako Ekintzaren kontzeptuek eskantako markoa aztertu zuen. Dianik zioen gizarte mugimenduen ekintzen aspektu guztiak orientazio ideologikoengandik moldatuak dauden heinean, IEE-k ezaugarri desberdintzaileak ikusten lagundu beharko ligukeela, hau da, gizarte mugimenduen baitan aniztasuna eta bestetik, gizarte mugimenduen eta beste fenomeno politikoaren arteko hurbilpena antzemateko baliagarria izan behar du. Hala ere, Diani-k ez zuen uste IEE-k ikuspegi klasikoek utzi zituzten hutsuneak eta dituzten akatsak konponduko dituenik. IEE funtsezko erraminta bat bezala ikusi zuen, baina ikerketarako prozedimenduak errazak ez direnez, printzipio orokor batean zifratzeko zailtasunak ikusi zituen. Esplorazio maila batean IEE-k, esan dugun bezala, erraminta heuristiko aproposa da Dianiren ustetan, baina ez zuen hain garbi ikusten, Zald-ek zioen moduan, paradigma bat izan zitekeenik.

Alde batetik, Dianik zalantzak zituen errekurtsoen mobilizazioaren ikuspegi klasikoaren teoriak gizarte mugimenduen eta ekintza politikoaren inguruan egiten duten analisia nola hobetu zitekeen. Zaila ikusi baitzuen IEE-k errekurtsoen mobilizazioaren eta dibertsitate kulturalaren analisiaren artean zubi bat eraikitzeko gaitasuna izatea. Bestetik, egiturazko aldaketeten inguruan IEE-k eman zezakeen azalpenetan zailtasunak ikusi zituen (Diani, 2000: 20).

IEE-ren arazo nabarmenena fokatzeko zehatz bat (errekurtsoen mobilizazioa) aberasteko eta aplikazio esparrua zabaltzeko saiakeran dagoela, bere instalazio originaletatik pasa gabe, modu erradikalean birpentsatuz. Diani-k egin zuen kritika honetan, Zald-en testuan errekurtsoen mobilizazioak jaso zuen danbaterako eta gero, fokatzeko hau bere onera ekartzen saiatu zen. Bere kritikaren momentu batean zioen errekurtsoen mobilizazioa teoria bezala egokia izan daitekeela edo ez, eta teoria hau hobetzeko saiakerak egon daitezkeela. Baina IEE-ren kasuan, teoria bera hobetzea saiatzeaz aparte, gizarte mugimenduengan interes empirikoa duten pertsonengandik garatutako ekintza kolektiboaren teoria, teoria bat denik ukatzen duela zioen Diani-k.


Bestetik Diani-k gogoratzen digu, 1990etik ordura arte gizarte mugimenduen inguruan burutu zituen ikerketetan hauen ezaugarri informal eta sare sozialen ezaugarriak kontutan hartu zituela, aktore indibidualen eta antolatuen arteko elkar eragina aztertuz, eta esparru gatazkatsuek garatzen duten identitate kolektibo zehatza erreparatuz. Aitortu zuen bere ikuspegi hau, batez ere, Tilly-ren eragin izan zuela, baita Melucci-ren sare murgilduen kontzeptuaren eta Pizzornoren identitate kolektiboaren ekarpenaren eragina izan zuela ere, besteak beste. Diani-k zioen bere ikuspegiarekin IEE-k planteatzen dituen egonezinei irtenbidea ematen diela, baita prozesu mobilizatzaileen harreman

naturala geroz eta esplizituago egiten du ere. Diani-k gizarte mugimenduak aztertzeko aholku bat eman zuen, hain zuzen ere gizarte mugimenduak sare bezala ulertzeko bidea proposatuz. Zentzu honetan aberasgarriagoa izango zaigula zioen mugimenduen arteko harremana, eta hauek alderdiekin, interes taldeekin duten harremana modu ezberdinean aztertzen baditugu.

IEE-k beharrezkoa du kultura eta harreman sozialen arteko elkar eragin esplizituago bat, batez ere, orientazio ideologiko eta kulturalak ingurune sozial zahaztuan integratuak egon daitezzen. Ideologia ikuspegi zabalago baten zati bat besterik ez da, Dianiren aburuz, IEE-ren perspektibarekin ideia hau emantzat bezala kontutan hartzen da eta, mobilizatutako aktoreen portaeraren analisisan oinarri bezala erabiltzen da. Zentzu honetan, Diani-k zioen indibiduoak ezaugarri zehatz batzuk partekatzen dituzten heinean, taldeetako agregatu bezala kontsideratuak direla.

Hala eta guztiz ere bukatzeko, gorago esan dugun moduan, Diani-k IEE, erraminta baliagarri bat dela zioen; baina ez Dalton-ek, ezta Zald-ek ere aipatu zuten arrazoi batengatik. Gizarte mugimenduen sareengan atentzioa deitzeko balio duela zioen, maila interinstituzionalean nahiz interpersonalean. Diani-ren esanetan, IEE-k gizarte mugimenduan ikuspegi klasiko bat zalantzan jarri nahi du, ikuspegi arrazional, instrumental eta entitate ideologiko bezala ikuskatzen dituen gizarte mugimenduen bertsio objetibatu bat (Diani, 2000: 7).

Irudia 5: IEE DIANIren ekarpenarekin



IDEOLOGIKOKI EGITURATUTAKO EKINTZAREN JARDUTEKO ESPAZIOA MUGIMENDUETAN KOKATZEN DA SOILIK?

Diani ez zen Zald-i kritika egiten hausartu zen bakarra, aldizkari eta zenbaki berean, Bert Klandermans-ek ere bere kritika kontstruktiboa egin zion (Klandermans, Must We Redefine Social Movements as Ideologically Structured Action?, 2000). Azken urteotan ikuspegi kultural / identitarioa gizarte mugimenduen ikerketetan txertatzeko saiakerak ugariak izan dira, horren adibide Zald-en ekarpena dugula zioen Klandermans-ek. Azken batean, Klandermansen hitzetan, Zald-ek ez zuen soilik gizarte mugimenduen analisek ideologiari atentzio gehiago jarri behar diotela azpimarratzen, baizik eta gizarte mugimenduen portaera birdefinitu egin nahi zuen. Klandermans-ek bere ekarpenean galdera eta kezka batzuk plazaratu zituen, baita euren erantzuna eraikitzen saiatu zen ere bai. Zald-ekin kritiko agertu zen arren, argi uzten du Zald-ek egin zuen ideologiaren itzuleraren alde agertzen dela.

Lehenengo galderari dagokionez, IEE-k gizarte mugimenduen definizioan uzten duen hutsuneaz ohartu zen Klandermans, izan ere, gizarte mugimenduak ideologikoki egituratutako ekintza baldin badira, non geratzen da "liskartsuaren" kontzepzioa? Lan honetan ia da aipatu dugun definizio bat ekarri zuen Klandermans-ek, Tarrow-ena (2012) hain zuzen ere: gizarte mugimenduak <ekintza kolektiboaren parte direnak eta ekintza politikoen bilduma bat osaten dutenak dira; hauek barne sare sozialetan eta ekintza kolektiboen markoetan oinarritzen dira, ekintza hauen bitartez boteretsuen aurka desafioak mantentzen dituztelarik>. Lan honen hasierako zatian aipatu dugun bezala, definizio hau gizarte mugimenduak beste ekintza kolektiboaren moduetatik bereizteko erabilgarria zaigu. "Liskartsua" da, Klandermans-en esanetan, gizarte mugimenduak ezaugarritzen duten faktorea. McAdam-ek, Tarrow-k eta Tilly-k horren inguruan idatzitako liburuan dioten bezala, ekintza kolektibo liskartsuak gizarte mugimenduen ikerketaren zentroa izan behar du (McAdam, Tarrow, & Tilly, Dinámicas de la contienda política, 2005).

Hala ere Klandermans-ek zioen ekintza kolektibo liskartsua eta ideologikoki egituratutako ekintza baztergarriak ez direla, osagarriak baizik, ekintza kolektibo liskartsu oro ideologikoki egituratuta baitago. Baina ideologikoki egituratutako ekintza, ez dela beti liskartsua zioen Klandermans-ek. Ideologikoki egituratutako ekintza batek ez du zertan gizarte mugimendu baten antolakundean egikaritu behar, hau da, ez du zertan sistema edo kode kultural zehatz batzuen kontra agertu behar. Gizarte guztietan ideologikoki egituratutako ekintzen sorta bat dago, status quo-a indartzera bideratuak daudenak ere bai. Ekintza hauek ez dira normalean mugimenduen portaera bezala identifikatzen.

Bigarren galderan IEE-k unitate analisirik ez duela agerian geratzen dela zioen Klandermans-ek, ekintza kolektibo liskartsuak aldiz unitate analisisia protestaren kasua du. Liskarraren elementuak ekintza bat protesta ekintza den hala ez zehazteko erraztasuna jartzen du, baina IEE-k ez du analisirako unitaterik zehazten. Klandermans-en ustetan, ideologiek gizarte mugimenduen portaeraren atzean duten eragina eta mugimenduen artekoengan ahalbideratzen duten harremana ikertzeko interesgarriagoa suertatzen zaigula, gizarte mugimenduen definizioan sartzea baino. Ez zuen

mugimenduen portaera, ideologikoki egituratutako ekintza ez denik esaten, baizik eta IEE definizioaren ezaugarri bat ez dela.

Hirugarren galderarekin gizarte mugimenduen portaera zein den jakin nahi zuen Klandermans-ek, Zald-ek zein portaera mailarengan egin behar den analisia ez baitzuen zehaztu; hau da, mugimenduaren jarraitzaileen portaerarengan edota ekintza kolektiboaren kasu puntualengan. Honekin lotuta ideologiari dagokionez, analisi mailak oraindik labainkorragoak dira, izan ere ideologia, maila indibidualean, mugimenduen antolakundean, mugimendu osoan, edota mugimendu familietan aztertu baitaiteke. Ekintza kolektiboa sinesmen kolektiboekin harremantzen da, ekintza indibiduala sinesmen indibidualekin harremantzen den moduan, baina Klandermans-ek kolektiboa eta indibiduala konektatzeko modua zein izan zitekeen planteatu zuen, azkenik, ekintza kolektiboa ekintza indibidualari eranstean zaiola, baina sinesmen kolektiboak ez zaizkiola sinesmen indibidualari eranstean ondorioztatzen.

Laugarren galderari dagokionez, IEE-ren beharraz mintzatu zen Klandermans, izan ere ez zuen beharrezkoa ikusten mugimenduen portaera zehazteko beste kontzeptualizazio bat. Klandermans-ek zioen ideologia aztertzeke ekintza kolektiboaren markoari edota mobilizazio potentzialari IEE-ren balioa eranstea ez dela beharrezkoa. Mugimendu batean parte hartzen dutenak mugimenduaren ideologiaren parte bat gutxienez partekatzen dutela baieztatzen du, zentzu honetan ideologia ez da aldagai bat, konstante bat baizik. Hortaz, mugimenduan parte hartzea beti izan da ideologikoki egituratutako ekintza. Klandermans-ek zioen modelo teoriko klasikoek hau kontutan hartzen dutela ia da.

Azken galderarekin ez zuen ondorio garbirik lortu Klandermans-ek, gizarte mugimenduen ikerketarako agenda zabal baten beharra zalantzan jarri zuen. Hala ere, zalantzarekin batera esan zuen ideologian enfasi berezia egiteko beharrak gizarte mugimenduen ikerketa programa zabalago bat dakarrela.


Klandermans-ek, portaera arrazionalaren teorialariek ez bezala, eskaintza eta eskariaren kontzeptua sozializazioarekin lotu zuen. Hau da, eskaintza, mugimenduaren antolakundearen ezaugarrien inpaktuarekin, aukera politikoekin, parte hartze modu ezberdinen erakargarritasunarekin, eta abarrekin lotzen da. Eskaria aldiz, gutxiago ikertu den aldea, mugimenduen parte hartzearekin zer ikusi gehiago du, zergatik jendeak gizarte mugimenduetan parte hartu nahi duten kezka loturik. Klandermans-ek mugimenduetan parte hartzeko sozializazioa oso goiz hasten dela aipatu zuen arren, eskaintza eta eskariaren dinamikak eman behar direla pertsona batek mugimendu baten parte hartzeko azpimarratu zuen. Esan dugun bezala, eskaintza mugimenduaren antolakuntzaren historiari erreferentzia egiten badio, eta eskariak parte hartze indibidualari erreferentzia egiten badio, Klandermans-en ustetan, mobilizazio prozesuak beharrezkoak dira bi hauek uztartu ahal izateko; gizarte mugimenduen ikerketetan ezinbestekoak direnak.

Azkenik Klandermans-i kezka bat sortu zitzaion, izan ere geroz eta gehiago argudiatzen baita gizarte mugimenduen antolakundeak alderdi politikoek ordezkatu dituztela hiritarren interesen bitartekari bezala. Ideia hau defendatzen duten autoreek ez dute gizarte mugimenduen ekintzaren instituzionalizazio bat bezala ikusten, baizik eta politikaren *movementization* bat bezala. Zentzu

honetan, Klandermans-en esanetan, Zald-ek IEE, politikaren eta mugimenduaren izendatzaile komuna dela argudiatzen zuen. Klandermans-ek zioen politika eta gizarte mugimenduak ikertuko dituen eremu bateratu hori oso emankorra izan daitekeela, baina eremu hori Ideologikoki Egituratutako Ekintza den hala ez ikusteke dagoela. Klandermans-ek ez zuen oso garbi Ideologikoki Egituratutako Ekintzaren kontzeptua politikaren zein testuingurutan kokatzen den, definizio honetatik abiatuz, mugimendu bat eta errepresio / kontra-mugimendu bat nola bereizi daitezkeen, ezta IEE-k mugimendu baten portaera definitzen duen ere ez.

Ideologia faktore garrantzitsu bat da gizarte mugimenduen ikerketan, baita Zald-en gizarte mugimenduen ikerketaren agendara eramateko proposamena ere. Baina, Klandermans-ek ez zuen IEE gizarte mugimenduen ezaugarri definitzailea denik uste, hala ere, ideologiak gizarte mugimenduen ikerketan presentzia berezia berreskuratu beharko lukeela aipatzen zuen. Hortaz beharrezkoa ikusi zuen gizarte mugimenduen perspektibak eta ikerketak lantzerako orduan Ideologikoki Egituratutako Ekintzaren fokua presente edukitzea garrantzitsua dela.

Irudia 6: IEE KLANDERMANSen ekarpenarekin



Zald-ek begi onez ikusten ditu Diani-k eta Klandermans-ek egiten dizkieten kritikak, eta azpimarratzen du biak gizarte mugimenduen azterketetan ideologiak atentzio berezia behar duela oharitzen direla. Baina gizarte mugimenduen definizioan aldaketak egitearekin mesfidati agertzen dira kritika gauzatu duten bi autoreak. Ikusi dugun moduan, Diani-ren harremanezko perspektiba, banaketa zurrin batzuk gairatzeko lagungarria da. Bestetik Klandermans-ek eskaintza eta eskariaren artean egiten duen banaketa eta biak uztartzeko prozesua, gizarte mugimenduen ikerketetan oso erabilgarria da. Zald-ek dio, azken ideia hau oso bateragarria izan daitekeela errekurtsoen mobilizazioekin, prozesu politikoen, ideologikoki egituratutako ekintzarekin eta *framing* perspektibarekin.

Alde batetik Zald-ek Dianik egiten dioten kritikari erantzun bat eman nahian, honek aipatzen dituen harremanezko fokatea eta gizarte mugimenduen sarean antolatzeke gaitasuna ekartzen ditu. Baina honekin batera bi kezka sortzen zaizkio Zald-i, alde batetik, Diani-k, diskurtso klasikoei IEE-ren eremua zabala egiten zaienaren argudioa garatzen duen arren, Zald-ek ez du uste, gizarte mugimenduetan ideologiak garatzen direla ikuskatzeko, nahiko zabala denik. Bestetik, Klandermans-ek planteatzen duen eskaria eta eskaintzaren kontzepzioak gizarte mugimenduen ulermena gauzatzeko ez direla hain erabilgarriak dio Zald-ek. Azken honek gizarte mugimenduen antolakundearen mobilizazioaren fasean gertatzen diren lehentasunen sozializazioari, ideologiaren eta identitatearen sorrerari ez baitiete atentzio nahikoa jartzen (Zald, 2000b).

Bere kritikei egiten dien erantzunean gizarte mugimenduen IEE perspektibak ez duela paradigma aldaketa bat ekartzen onartzen du Zald-ek. Honek dio, IEE McCharty-k eta Zald-ek 1977an eman zuten definizioaren hedapena dela: "egitura sozialarengan edota gizartearen birbanaketan dauden elementu batzuegan aldaketak gauzatzeko lehentasunak ordezkatzeko dituen biztanleri baten sinesmen eta iritzi multzo bat da gizarte mugimendua" (McCarthy & Zald, 1977). IEE-ren kontzeptuak sentimenduen eta lehentasunen inguruan historikoki pentsatzera laguntzen gaitu, baita Zald-en ustetan gizarte mugimenduen ikerketan gure helburuen eta analisi unitateen ikuspegia zabaltzen laguntzen digu ere.

Honekin loturik eta Klandermans-ek egiten dion ikerketa unitatearen kritikaren inguruan, hausnarketa bat burutzen du Zald-ek. Gogoratu, Klandermans-ek gizarte mugimenduen Tarrow-en (2012) definizioa ekartzen duela esane, gizarte mugimenduak <ekintza kolektiboaren parte direnak eta ekintza politikoen bilduma bat osaten dutenak direla; hauek barne sare sozialetan eta ekintza kolektiboaren markoetan oinarritzen dira, ekintza hauen bitartez boteretsuen aurka desafioak mantentzen dituztelarik>. Arazoa, esan dugun moduan, analisi unitatearekin erlazionatuta dago, Klandermans-ek <protesta> gizarte mugimenduen identifikaziorako ezaugarri bereizgarria dela onartzen du. Baina horretarako gizarte mugimenduen Tilly-ren definizioa aproposagoa dela nabarmenduz: "Boterea bidegabeki dutenen pean bizi den biztanleriaren izenean, biztanleri horren parte batek egiten dituen agerraldi publiko errepikatuen bidez boteretsuen aurkako desafio konstante bat dira gizarte mugimenduak" (Tilly, 1994).

Are gehiago, Zald-ek protesta ekitaldiak gizarte mugimenduen ikerketa unitaterik garrantzitsuena izan behar duela uste du, izan ere, zientzia normalarekin bat egiten baitu. Idei honekin komunikabideen

papera azpimarratzen du, hauek protestaren inguruan eman dezaketen informazioa garrantzitsua dela ikusten baitute. Zald-ek protesta ekitaldiaren informazioa helarazterako orduan, honekin batera ezinbestekoa ikusten du erreklamazioen berri eman beharko litzatekeela, protesta modu horiek konbentzionalak diren ala ez jakiteko, protesta beraren modua... Aspektu hauek kontutan hartzen ez badira ekintzaren parte handi bat galduko dugulakoan dago Zald.

Gizarte mugimenduen inguruko ikerketak Tarrow-k edota Tilly-k proposatutako definizioek ahalbideratutako zelai epistemikoan jarraituko duten arren, aberasgarria izanen litzateke, Zald-en ustetan, munduarekin harreanduak dauden prozesuei atea zabalduko dien agenda eta definizio berri bat garatzea. Zald-ek beharrezkoa ikusten baitu politikaren eta ideologiaren sozializazio prozesuen inguruko ikerketekin, kontaktu handiago beharko luketela izan gizarte mugimenduen analisi klasikoek.

VIII. ONDORIOAK

Gizarte mugimenduen inguruko hausnarketa xume honetan egin diren ekarpenen balorazioarekin bukatutzat emango dugu lan hau. Helburua ekarpen berritzaile bat mahai gaineratzea izan da, eta bide batez, ekarpen honek gizarte mugimenduen analisiarengan duen eragina aztertzea izan da. Lan honek dituen mugak direla eta, gaiaren inguruan zertzelada batzuk soilik planteatu ditugu, garrantzitsuena zertzelada hauek etorkizun baterako ateak irekiak uzten dituztela da, gizarte mugimenduen inguruko analisisian bide berri bat planteatzeko ahaleginetan.

Ikuspegi epistemologiko batetik, oraindik ere gizarte mugimenduen inguruko teoria zabal baten beharretan gaude, izan ere, Zald-ek bere azken ekarpenean dioen moduan, gizarte mugimenduek munduan gertatzen diren gertakariei egokitzuz joan dira, eta bide batez, gertakari horiek ikertzen dituzten esparru akademikoak ere egoera horiei egokitu dira. Aurreko atalean ikusi dugu bi gizarte mugimenduen inguruko definizio bateratu bat emateko zailtasunak agertzen dituztela teoriak. Integrazio saiakerek ere mugimenduak ikertzeko perspektiba bateratu bat emateko nahia agertu dute, horrelako desadostasunak gertatu ez daitezten. Guk ere, zentzu honetan, gaur egun gizarte mugimenduen esparru zientifikoa pil-pilean dagoen hausnarketa bat ekartzea hobetsi dugu, eztabaida honetan gaur egun, ideologiak eta identitate kolektiboak mugimenduaren egituretan duten eraginaren azterketa islatzen baita.

Lehenengo atalean ekarri dugun Brand-en ideia gogoratuz, gizarte mugimenduek izaera ziklikoa dutela eta haustura kultural baten inguruan eraberritzen direla protestak zioen. Modu berean, ziklo batetik bestera haustura bat gertatzen denean, dauden perspektibek ezin dute protesta loraldi berri hura azaldu, orduan beste perspektiba bat garatzen da. Lehenengo atalean ikusi dugu nola gizarte mugimenduak ikertzeko perspektiba guztiak, aurrekoek azaldu ezin zituzten hutsuneak betetzeko asmoz sortu direla. Ideologia eta balore politiko kolektiboak gizarte mugimenduen ikerketan txertatzearen ahalegina ere zentzu honetan ulertu dezakegu. Azken urteotan identitate kolektiboak eta ideologia berak garrantzi berezia hartu dute gizartean, eta hori gizarte mugimenduetan islatua ikusi egin da. Hala ere, ez da soilik garai berrietako beharrei egokitzeko joera honek identitatearen eta ideologiaren garrantzia goraiatu duena, gizarte mugimenduen teoria oso bat emateko nahiak ere eragina izan du. Gizarte mugimendu bat osotasunean eta faktore guztiak barnebiltzen dituen teoria bat marrazteko nahia hain zuzen ere. Ideologiaren nozio hau bi ideia barnebiltzen ditu: alde batetik baloreak eta bestetik hautemate tresnak, alegia tresna kognitiboak¹⁹.

Atal teorikoan ikusi dugu identitatearen sorketan praxi kognitiboak duen garrantzia, izan ere ideologia kolektiboaren osaketan eta, mugimenduen aukeraketa prozesuan eragina duten osagai kognitiboak eta sinesmenak faktore garrantzitsuak baitira. Praxi kognitiboak identitatearen eta ideologia kolektiboaren osaketan eta garapenean eragina du, ez du gizarte mugimenduen perspektiba bat bezala funtzionatzen. Osagai bat besterik ez da, giza ezagupenean elementu erabakigarri bat, eta gizarte mugimenduak prozesu sozial zabal baterako esanahiaz hornitzen ditu. Eyerman-ek eta

¹⁹ Lan honetan ez da bereizketa hau kontutan hartu, batak besteak ahalbideratzen duela uste baitugu.

Jamisonek aipatu zuten moduan, esanahi horien eta ekintzen artean interakzio dinamiko bat ematen da, identitatea sortzen delarik; beraz gizarte mugimenduen analisirako teoriarik kontutan hartu beharrekoa kontzeptu bat da.

Eztabaida teorikoan ikusi dugu Zald-ek eta Dalton-ek ideologiak faktore estrukturaletan duen garrantzia aipatzen dutela, honek mugimenduan norabide bat edo beste hartzea ahalbideratzen du. Zehatzago esanda, ideologiak eta horren atzean dauden balore eta identitate politikoek gizarte mugimenduen egiturak, helburuak eta taktikak definitzen dituzte. Mugimendu batean garatzen den sinesmen sistemak talde horren posizio ideologikoa zehazten du, beraz mugimendu horrek erabiliko dituen taktikak eta ekintza esparruak zeintzuk diren definitzen ditu, baita mugimendu horrek eskuragarri dituen errekurtsoak ere, azalpen marko honi Ideologikoki Egituratutako Ekintza deitu zioten autore hauek.

Ideologikoki Egituratutako Ekintzari Diani-k eta Klandermans-ek egiten dizkieten ekarpenak aintzat hartzen baditugu, Daltonen eta Zald-en ideia biribildu dezakegu. Baina lehengoz, gizarte mugimenduen inguruko pertzepzio berdinez ari gara? Beharrezkoa da gizarte mugimenduen kontzeptzio holistikoa bat, hau da, gizarte mugimenduen inguruko, guztiontzako baliagarria den erreferentziazko definizio bat. Modu honetan horren gainean sortzen den analisi-teoria guztiontzako oinarria bera izango da.

Bestetik aipatzekoa da ere, autore hauek gizarte mugimenduen agenda zabaltzeko beharra ez dutela oso garbi ikusten, ez baitute IEE mugimenduen paradigmatzat hartzen. Arrazoia dute, IEE ezin da gizarte mugimenduen definizioan eta analisisian bihurtu, aipatu dugun moduan, faktore askok eragina dute gizarte mugimenduen osaketa eta garapenean, guztiak kontutan hartzen dituen paradigma bat osatzea litzateke helburua. Klandermans-ek eta Diani-k aipatu zuten bezala, ideologiaren sozializazio prozesuaren inguruko ikerketek kontaktu handiago izan beharko lukete gizarte mugimenduen analisi klasikoekin.

Analisi klasikoak aipatu ditugula, atal teoriakoan azaldu dugun agenda klasikoak eta berriki egin zaizkion ekarpenak kontutan izango ditugu. McAdam, Tarrow eta Tilly izan dira agenda klasikoaren abangoardia nolabait esatearren, nahiz eta hauekin McCarthy, Zald, eta beste hainbat autoreek lan egin duten. Agenda klasikoa da, akademia munduan gizarte mugimenduen analisirako dagoen azterketa modu arrakastatsuen, hala ere kritika dezente bistaratu zaizkio. Ekarpene xume honetan eta ekarri dugun eztabaidak zentzua hartu dezan, agenda klasikoari proposamen apal bat egingo diogu:

Agenda klasikoaren baitan gizarte mugimenduak aztertzeko, ikerlariak 4 galdera kontutan hartu behar dituztela diote McAdam-ek, Tarrow-k eta Tilly-k (2005: 18), lau galdera horiekin batera, identitatea eta ideologia kontutan hartuko dituen beste galdera bat egitea da gure proposamena²⁰: *“5. Nola eragiten dute eta zenbateko eragina dute identitateak eta ideologiak mobilizazio egiturengan, aukera politikoengan eta ekintza motengan?”*

²⁰ Ikusi galderak lan honetako 17. orrialdean.

Bukatu baino lehen azken kontu bat azpimarratu nahi genuke, enmarkazio prozesuak, eta marko diskurtsiboak ideologia eta identitatea kontutan hartzen badituzte ere, ez dute gizarte mugimendu barruan duten eragina aztertzen. Enmarkazio prozesuak, errealitatea eta gauzen egoera batera interpretatu eta definitzen duten prozesuei deitzen zaie. Hauek mobilizaziorako garrantzitsuak dira, injustizia markoak, ekintza markoak definitzen dituztelako, baina beti ere kanpoko egiturari begira. Gure proposamena identitateak eta ideologiak antolatzeke gaitasunean zer ikusi gehiago duela da, egituretan eragin zuzena baitute, enmarkazio prozesuetan errealitatea marrazten da soilik.

Azkenik ondorioztatzea, planteatu ditugun analisirako erreminta hauek guztiekin mapa berri bat marrazten hasi garela, gizarte mugimenduen ikerketan ekarpen txiki bat egiteko asmoz. Beraz, esan dezakegu gizarte mugimenduen ikerketan bide berri bat bistaratu zaigula, eta horri ekiteko baliabideak eta tresnak mahai gainean ditugula, hauetaz baliaturik mapa osatzea eta bideari ekitea soilik falta zaigu.

IX. BIBLIOGRAFIA

- Brand, K.-W. (1992). Aspectos cíclicos de los nuevos movimientos sociales: fases de crítica cultural y ciclos de movilización del nuevo radicalismo de clases medias. Honako liburuan: R. J. Dalton, & M. Kuechler (1992): *Los nuevos movimientos sociales* (or. 45-69). Valencia: Alfons el Magnànim. IVEI.
- Calle, A. (2007). El estudio del impacto de los movimientos sociales. Una perspectiva global. *REIS: Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, (120), 133-153.
- Cohen, J. (1985). Strategy or Identity: New Theoretical Paradigms and Contemporary Social Movements. *Social Research*, 52(4), 663-716.
- Cohen, J., & Arato, A. (2001). Capitulo X. Los movimientos sociales y la sociedad civil. Honako liburuan: J. L. Cohen, & A. Arato (2001): *Sociedad civil y teoría política* (or. 556-635). Mexico: Fondo de Cultura Económica.
- Coleman, J. (1990). *Foundations of Social Theory*. Cambridge, MA: Belknap.
- Dalton, R. J. (1994). *The Green Rainbow: Environmental Groups in Western Europe*. New Haven: Yale University Press.
- Dalton, R. J., & Kuechler, M. (1992). *Los nuevos movimientos sociales*. Valencia: Alfons el Magnànim.
- Della Porta, D., & Diani, M. (2009). *Social Movements: An introduction*. John Wiley & Sons.
- Della Porta, D., & Diani, M. (2011). *Los Movimientos Sociales*. Madrid: Editorial Complutense.
- Diani, M. (2000). The Relational Deficit of Ideologically Structured Action. *Mobilization: An International Journal*, 5(1), 17-24.
- Eyerman, R. (1998). La praxis cultural de los movimientos sociales. Honako liburuan: P. Ibarra, & B. Tejerina (1998): *Los movimientos sociales. Transformaciones políticas y cambio cultural*. (or. 139-163). Madrid: Trotta.
- Eyerman, R., & Jamison, A. (1991). *Social Movements. A Cognitive approach*. Cambridge: Polity Press.
- Garrison, W. A. (1992). *Talking Politics*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Gurr, T. (1970). *Why Men Rebel*. Princeton: Princeton University Press.
- Ibarra, P., & Tejerina, B. (1998). *Los movimientos sociales. Transformaciones políticas y cambio cultural* (ed.). Madrid: Trotta.
- Jasper, J. (2012.eko urtarrilla/apirilak). ¿De la estructura a la acción? La teoría de los movimientos sociales después de los grandes paradigmas. *Sociología*, 27(75), 7-48.
- Klandermans, B. (1997). *The Social Psychology of Protest*. Oxford: Blackwell.
- Klandermans, B. (2000). Must We Redefine Social Movements as Ideologically Structured Action? *Mobilization: An International Journal*, 5(1), 25-30.
- Klandermans, B., & Goslinga, S. (1999). Discurso de los medios, publicidad de los movimientos y la creación de marcos para la acción colectiva: ejercicios teóricos y empíricos sobre la construcción de significados. Honako liburuan: D. McAdam, J. D. McCarthy, & M. N. Zald (1999): *Movimientos sociales: perspectivas comparadas* (or. 442-474). Madrid: Istmo.
- Kriesi, H. P. (1999). La estructura organizacional de los nuevos movimientos sociales en su contexto político. Honako liburuan: D. McAdam, J. D. McCarthy, & M. N. Zald (1999): *Los movimientos sociales: perspectivas comparadas* (or. 221-261). Madrid: Istmo.
- Laraña, E. (1999). *La construcción de los movimientos sociales*. Madrid: Alianza.
- Laraña, E., & Gusfield, J. (1994). *Los nuevos movimientos sociales. de la ideología a la identidad*. Madrid: CIS.

- McAdam, D. (1999). Orígenes terminológicos, problemas actuales, futuras líneas de investigación. Honako liburuan: D. McAdam, J. D. McCarthy, & M. N. Zald (1999): *Movimientos sociales: perspectivas comparadas* (or. 49-70). Madrid: Istmo.
- McAdam, D., McCarthy, J. D., & Zald, M. N. (1999). *Movimientos sociales: perspectivas comparadas*. Madrid: Istmo.
- McAdam, D., McCarthy, J. D., & Zald, M. N. (1999). Oportunidades, estructuras de movilización y procesos enmarcadores: hacia una perspectiva sintética y comparada de los movimientos sociales. Honako liburuan: D. McAdam, J. D. McCarthy, & M. N. Zald (1999): *Movimientos sociales : perspectivas comparadas: oportunidades políticas, estructuras de movilización y marcos interpretativos culturales* (or. 21-46). Madrid: Istmo.
- McAdam, D., Tarrow, S., & Tilly, C. (2005). *Dinámicas de la contienda política*. Barcelona: Hacer .
- McCarthy, J., & Zald, M. N. (1977). Resource Mobilization and Social Movements: As Partial Theory. *American Journal of Sociology*, 82, 121-1241.
- Melucci, A. (1982). *L'Invenzione del Presente. Movimenti, Identità, Bisogni Individuali*. Bologna: il Mulino.
- Olson, M. (1965). *The Logic of Collective Action*. Cambridge: Harvard University Press.
- Riechman, J., & Fernández Buey, F. (1995). Capítulo 1. Hacia un marco teórico para el estudio de los nuevos movimientos sociales. *Redes que dan libertad*. en Barcelona: Paidós.
- Rucht, D. (1999). El impacto de los contextos nacionales sobre la estructura de los movimientos sociales: un estudio comparado transnacional y entre movimientos. Honako liburuan: D. McAdam, J. D. McCarthy, & M. N. Zald (1999): *Movimientos sociales: perspectivas comparadas* (or. 262-287). Madrid: Istmo.
- Santamarina Campos, B. (2008). Movimientos sociales: una revisión teórica y nuevas aproximaciones. *Boletín de Antropología Universidad Antioquia*, 22(39), 112-131.
- Smelser, N. (1962). *Theories of Collective Behaviour*. New York: Free Press.
- Snow, D. (2004). Framing Processes, Ideology, and Discursive Fiefs. Honako liburuan: D. Snow, S. Soule, & H. Krisie (2004): *The Blackwell Companion to Social Movements* (or. 380-412). Oxford: Blackwell.
- Snow, D. A., & Benford, R. (1992). Master Framse an Cycles of Protest. Honako liburuan: A. Morris, & C. McClurg Mueller (1992): *Frontiers in Social Movement Theory* (or. 133-155). New Haven : Yale University Press.
- Sztompka, P. (1995). *Sociología del cambio social*. Madrid: Alianza Editorial.
- Tarrow, S. (2012). *El poder en movimiento. Los movimientos osciales, la acción colectiva y la política*. Madrid: Alianza Editorial.
- Tilly, C. (1978). *From mobilization to revolution*. Reading, MA: Addison-Wesley.
- Tilly, C. (1986). *The Contentius French*. Cambridge MA: Harvard University Press.
- Tilly, C. (1994). Social Movements as Historically Specific Clusters of Political Performances. *Barkeley Journal of Sociology*, 38, 1-30.
- Tilly, C., & Wood, L. (2009). *Social Movements, 1965-2008*. Boulder: Paradigm Press.
- Touraine, A. (1981). *The Voice and The Eye. An Analysis of Social Movements*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Zald, M. N. (2000a). Ideologically Sturctured Action: An enlarged agenda for social movement research. *Mobilization: An International Journal*, 5(1), 1-16.
- Zald, M. N. (2000a). Ideologically Sturctured Action: An enlarged agenda for social movement research. *Mobilization: An International Journal*, 5(1), 1-16.

Zald, M. N. (2000b). New Paradigm? Nah! New Agenda? I hope so. *Mobilization: An International Journal*, 5(1), 31-36.

Zubiaga, M. (2007). *Boteretik eraginera. Mekanismoak eta prozesuak Leitzarango eta Urbina-Maltzagako liskarretan*. Doktorego-tesia. UPV/EHU: Leioa.